


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

ABOKATUEN ARTEKO NEGOZIAZIO EXTRAJUDIZIALAK FROGABIDE GISA EPAITEGIAN

Gradu Amaierako Lana

Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultatea

Zuzenbide Gradua

Egilea: June Sanz Mugica

Tutorea: Eneko Etxeberria Bereziartua

2023-2024 ikasturtea. Donostian 2024ko ekainaren 13an.

LABURDURAK

Art.: artikulua

EAO: Estatuko Aldizkari Ofiziala

EK: Espainiako Konstituzioa

KZ: Kode Zibila

ZK: Zigor Kodea

PZL: Prozedura Zibilaren Legea

PKL: Prozedura Kriminalaren Legea

BJLO: Botere Judizialaren Lege Organikoa

AKD: Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoa

AEO: Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra

KA: Konstituzio Auzitegia

KAE: Konstituzio Auzitegiaren Epaia

JAN: Justizia Auzitegi Nagusia

EB: Europar Batasuna

EBJAN: Europar Batasuneko Justizia Auzitegi Nagusia

AURKIBIDEA

- I. SARRERA**
- II. ABOKATU LANBIDEA ETA BALDINTZAK**
 - 1. Abokatutza
 - 2. Printzipio gidariak, eskubideak eta betebeharrak
- III. ABOKATUEN ARTEKO HARREMANAK: GATAZKEN KONPONBIDERAKO BIDEA**
 - 1. Abokatu-bezero harremana
 - 2. Abokatuaren arteko harremana
- IV. ABOKATUEN ARTEKO NEGOZIAZIOETAN APLIKAGARRI DEN ARAUDIA**
 - 1. Estatuko xedapen aipagarriak
 - 1.1 Espainiako Konstituzioa
 - 1.2 Botere Judizialaren Lege Organikoa
 - 1.3 Prozedura Kriminalaren Legea
 - 1.4 Prozedura Zibilaren Legea eta 36/2011 legea, urriaren 10ekoa, lan-arloko jurisdikzioa arautzen duena
 - 1.5 Kode Zibila
 - 1.6 Zigor Kodea
 - 1.7 Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra
 - 1.8 Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoa
 - 2. Estatuz gaindiko xedapen aipagarriak
- V. SEKRETU PROFESIONALA ETA KONFIDENTZIALTASUNA**
 - 1. Kontzeptu eta araudia
- VI. ABOKATUEN ARTEKO NEGOZIAZIOAK FROGABIDE GISA**
 - 1. Kontzeptu eta araudia
 - 2. Teknologia berriak
- VII. MADRILGO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIKO 6251/2023 EPAIA**
 - 1. Epaiaren laburpena
 - 1.1 Aurrekariak
 - 1.2 Zuzenbideko oinarriak eta epaia
 - 2. Juridikoki planteatzen den gatazka

3. Epaiaren ondorioak: Defentsa Eskubideari buruzko Lege Organikoaren proiektua.

VIII. ONDORIOAK

IX. BIBLIOGRAFIA, JURISPRUDENTZIA ETA LEGEDIA.

I. SARRERA

Lan honen xedea, abokatuen arteko negoziazio extrajudizialak ematen direnean, beste alderdiaren baimenik gabe hauek epaitegian frogabide gisa aurkeztean zer gertatzen den aztertzea izango da. Izan ere, abokatu batek, beste alderdiaren letratuarekin izan dituen negoziazioak, bere baimenik gabe azaleratzen baditu, eta kasu honetan epaitegian froga gisa aurkeztu, sekretu profesionalaren urraketa baten aurrean egongo gara¹.

Hala, lan honetan, abokatuak beren arteko harremanetan duten konfidentzialtasuna eta honen abusua aztertuko da, sekretu profesionala zer den ikusiz, eta abokatuen arteko negoziazioek duten garrantzia azpimarratuz.

Horretarako, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko 6251/2023 epaia² hartuko dugu abiapuntu. Hemengo honetan, alderdi bateko abokatuak beste alderdiaren abokatuarekin izandako negoziazio extrajudizialean erabilitako posta elektronikoko mezuak frogabide gisa erabiltzen baititu.

Kasu honetan, Auzitegiak, errekurritzen den epaia deuseztagarria den erabakitzeke, frogabiderako eta prozesuko babes eraginkorrerako eskubidea (Espainiako Konstituzioko 24. Artikulua) alde batetik, eta konfidentzialtasunaren abusua bestetik (Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoko 5. Artikulua eta Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorreko 23. Artikuluak besteak beste) ponderatu beharko ditu.

Baina, lan hau, epaiaren deuseztagarritasun hori alde batera utzirik, frogabide horien zilegitasunari buruzkoa izango da, eta abokatu batek bere jardunean gauzatzen duen abusu horrek dituen ondorioak aztertuko ditugu. Izan ere, abokatuak Kode Deontologikoko arauak bortxatzea zilegi al da? eta bide horretatik lorturiko frogak, epaiketean aurkeztu al daitezke?

¹ Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuko 23. artikulua.

² Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko, Lan-arloko salako, 2023ko maiatzaren 26ko 6251/2023 Epaia.

Lanean zehar, galdera hauek erantzuten joango gara. Horretarako, lehenik abokatuaren kontzeptuaren azalpena emango dut, bere jardunak zertan datzan azalduz eta zer araudiren menpe dagoen ikusiz. Horrez gain, bere betebeharrak zeintzuk diren, abokatuaren harremanak nola arautzen diren, eta abokatuaren arteko negoziazioek duten garrantzia ere azpimarratuko dut. Azken honi dagokionez, abokatuak beren kideekin duten harremana non arautzen den ikusteaz gain, abokatuak bezeroekin duten harremanaren aipamena ere egingo dut. Negoziazioak, gatazken konponbiderako bidea direla azpimarratuz.

Hau guztia, Espainiar Estatuan dagoen marko juridikoaren azalpen batekin beteko dut. Bertan, Konstituzioko hainbat xedapen, Prozedura Zibilaren Legea, Prozedura Kriminalaren Legea, Abokatutzaren Estatutu Orokorra, Abokatutzaren Kode Deontologikoa etab. ikusiko ditugularik. Lege hauek jasotzen dituzten xedapenek, lanean azaltzen joango naizen kontzeptuak biltzen baitituzte eta bestalde, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko 6251/2023 epaiak jasotzen dituen beste hainbat xedapen ere aipatuko ditut.

Azken honi dagokionez, epaiaren aipamen ere egingo dut, bertan planteatzen den gatazka juridikoaren azalpen bat emanez. Baina, horra heldu aurretik, gaur egungo gizartean, eta auzitegietan, baliabide teknologikoen eragina ikusiko dugu. Izan ere, epaian, posta elektronikoko bidezko mezuak aurkezten dira epaitegian, eta beraz hauen froga-balioa zein den ikusiko dugu, azken urteetako teknologiaren gorakadarekin doktrina eta jurisprudentzia aldatzen joan baitira.

Hala, abokatuak zer den eta hauen arteko harremanak zeintzuk diren azalduaz, legediaren aipamena egin eta gainerako kontzeptuak azalduko ditut. Amaiera, lanaren ardatz den epaiaren azalpena emanez, bertan planteatzen den arazo juridikoari erantzuna emanez, eta nire ondorioetara heldu baino lehen, Diputatuen Kongresuan dagoen Defentsa Eskubideari buruzko Lege Organikoaren Proiektuari aipamen bat egingo dut. Azken hau oraindik indarrean ez dagoen arren, lanaren noranzkoa guztiz aldatuko lukeen legea baita. Bukatzeko, nire iritzia emanik, lanaren ondorio nagusia aterako dudalarik.

II. ABOKATU LANBIDEA ETA BALDINTZAK

Espainiar Konstituzioko (aurrerantzean EK) lehenengo artikulua jarraituz, Espainia zuzenbide estatu sozial eta demokratikoa den honetan, herritarrek lanerako askatasun osoa dute (baita betebeharra ere). Hala, Konstituzioko 35. Artikulua, lanbidea edo ofizioa askatasunez aukeratzeko eskubidea, lanaren bidez mailaz igotzeko eskubidea eta beren eta familiaren beharrak asetzeko adina ordainsari jasotzeko eskubidea jasotzen du³. Bada, abokatutza lanbidea ez da hemendik kanpo gelditzen, eta aitzitik, abokatuak, Estatu justuago batetarako ezinbesteko direla esan daiteke.

Abokatuak beren jardunean helburuak lortu nahi badituzte, beste abokatu batzuekin negoziatzea ezinbesteko dute. Negoziazio hau oinarri harturik, sarreran aipaturiko kontzeptuak garatzen joango gara, baina, horretarako lehenik abokatuak zer den eta abokatutza lanak zertan datzan azalduko dugu.

1. Abokatutza

Abokatutza, tradizio historiko handiko lanbide arautu bat da, interes publiko eta pribatuen defentsa juridikoari eta Justizia Administrazioaren lankidetzari loturik doana. 1978ko Espainiako Konstituzioak, abokatuaren figura aurreikusten du atxilotuari abokatu-laguntza emateko eskubidea egikaritzeko (EK 17.3. art.), babes eraginkorrerako (EK 24.2. art.) eta doako laguntza juridikorako (EK 119. Art.)⁴.

Hala, anitzak dira abokatuaren definizioa ematen diguten iturriak; Espainiako Errege Akademiak (*Real Academia Española* gazteleraz, aurrerantzean RAE) esaterako hurrengoa dio:

*“Profesional del derecho que presta asesoramiento jurídico y está habilitado para actuar ante los tribunales o entidades administrativas”*⁵.

³ Espainiako Konstituzioko 35. artikulua.

⁴ IPPN/CNMC/018/19 Errege Dekretuaren proiektua, Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duena (2019ko ekainaren 20a), Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala (2024.06.09an ziurtatuta, helbide honetan eskuragarri: https://www.cnmc.es/sites/default/files/2530888_14.pdf).

⁵ “Abogado” hitzaren definizioa Real Academia de la Lengua Española-ren Hiztegitik.

Bestalde, abokatutza-lanbidea, martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuaren bidez onartutako Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrean jasota dago (aurrerantzean AEO). Lege-testu honek bere I. Tituluko, I. Kapituluaren, “*Los Abogados y Abogadas*” titulupean abokatuaren lana zeini dagokion azaltzen du. Halaxe dio Estatutuko 4. Artikuluak bere lehenengo zatian: “*Son profesionales de la Abogacía quienes, estando en posesión del título oficial que habilita para el ejercicio de esta profesión, se encuentran incorporados a un Colegio de la Abogacía en calidad de ejercientes y se dedican de forma profesional al asesoramiento jurídico, a la solución de disputas y a la defensa de derechos e intereses ajenos, tanto públicos como privados, en la vía extrajudicial, judicial o arbitral.*”. Hala, aipaturiko artikulua irakurrita ondorioztatzen da abokatuaren kontzeptuak hiru ezaugarri izan behar dituela beti: Zuzenbideko lizentziatura, lanbidean benetan aritzea eta elkargoko kide izatea⁶.

Horrez gain, abokatuaren definizioa, Justizia Auzitegi Nagusiko (aurrerantzean JAN) hainbat epaiek ere osatzen dute, aipagarriena 1990eko azaroaren 10eko Justizia Auzitegi Nagusiarena, aurreko kodeei erreferentzia egiten dion arren, gaur egungo abokatuaren definizioari aplikagarri zaio⁷. Halaxe dio definizioari dagokionez: “*Abogado, es aquella persona que, en posesión del título de Licenciado en Derecho, previa pasantía o sin ella, previo curso en Escuela de Práctica Jurídica o sin él, se incorpora a un Colegio de Abogados y, en despacho propio o compartido, efectúa, los actos propios de esta profesión, tales como consultas consejos y asesoramiento, arbitrajes de equidad o de Derecho, conciliaciones, acuerdos y transacción, elaboración de dictámenes, redacción de contratos y otros actos jurídicos en documentos privados, practica de particiones de bienes, ejercicio de acciones de toda índole ante las diferentes ramas jurisdiccionales, y, en general, defensa de intereses ajenos, judicial o extrajudicialmente, hallándose, sus funciones y régimen interno, regulados por el Estatuto de la Abogacía aprobado por Real Decreto de 14 de julio de 1982, el cual define a la Abogacía como profesión libre e independiente, institución consagrada,*

⁶ FERNÁNDEZ CULEBRAS, María Jesús, "La profesión de abogado. Aspectos generales y deontología profesional", *Facultad de Ciencias Sociales de Cuenca, Seminario Permanente de Ciencias Sociales*, 2011, 4-5 or.

⁷ *Idem*, 6.or.

*en orden a la justicia, al consejo a la concordia y a la defensa de los intereses públicos y privados mediante las aplicación de técnicas jurídicas, aplicación, está reservada a los Abogados –artículo 8- a quienes corresponde, de forma exclusiva y excluyente, la protección de todos los intereses que sean susceptibles de defensa jurídica, determinando que, son Abogados, quienes, incorporados a un Colegio, en calidad de ejercientes, se dedican, con despacho profesional, a la defensa de intereses jurídicos ajenos”.*⁸

Kontzeptu honen azalpenaz gain, AEO-ak bere lehen artikuluan abokatutza lanbide aske eta independentea dela, defentsarako eta abokatu-laguntzarako oinarrizko eskubidearen eraginkortasuna ziurtatzen duela, eta pertsonen eskubide eta askatasunen berme gisa eratzen dela dio⁹.

Bestalde, eta geure gaiari hurbilago helduz, Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoa aipatzea ere ezinbestekoa da (aurrerantzean AKD). Deontologia hitzari dagokionean, Euskaltzaindiak “*Etikaren adarra, lanbide bati dagozkion eginbeharrez aritzen dena*” bezala definitzen du. Ondorioz, baimendutakoa eta debekatutakoa bereiztearen edo hautatzearen artean mugitzen gara, egin daitekeenaren eta egin ezin daitekeenaren artean, eta alderdi horiek eremu moraletik zein zuzenbide positibotik bidera daitezke, betiere etika eta morala zuzenbide positiboan arautzen badira. Ildo horretan, deontologia juridikoa, zuzenbidearen adar edo diziplina ororen moduan, araututa egon behar da; osterantzean, jarrera subjektibo batzuk sortzen dira, eta irizpide diskrezionalen alde egiten da, baimenduta dagoena eta debekatuta dagoena justifikatzeko¹⁰.

Deontologiak, abokatutza lanbidea gizatiarragoa izaten laguntzen du; izan ere, bere printzipioen bidez, arau tekniko batzuk baino zerbait gehiago ematen diote abokatutzari. Eraginkortasuna eta errentagarritasuna bilatuz, gure jarduera utilitarismo huts bihurtzen

⁸ Auzitegi Gorenaren, Zigor-arloko salako, 1990eko azaroaren 10eko RJ 1990\8875 Epaia.

⁹ Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuko 1. artikulua.

¹⁰CLAVIJO SUNTURA, Joel Harry, “El ejercicio de la abogacia y la deontología jurídica en la era digital”, *Associació de Juristes Valencians, Revisa Juridica Valenciana*, 42. zk., 2023, 132-133 or.

dutenak. Abokatutzaren dimentsio humanista dela eta, funtsezkoa da ikuskera pragmatiko hori gaintuz lanbidearen giza alderdi hori sendotuko duten arau batzuk izatea, eta horrek eragina izango du, zalantzarik gabe, abokatuak bezeroekin eta gainerako eragile juridikoekin dituen eguneroko harremanetan¹¹. Beraz abokatuak bere jardunean Kode Deontologiko hau jarraitu eta errespetatzea ezinbesteko duela ulertu dezakegu.

Arauen aipamen bat eginik, abokatuen lan-harreman bereziari aplika dakizkiokeen arau-iturrien hurrenkera, lehenik eta behin, erregelamendu-arauak berak ezarritakora mugatzen dela aipatu behar da; bigarrenik, alderdien borondatearen autonomiagatik aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetara, lan-kontratuan adierazitakoetara, aipatutako hitzarmenetan aurreikusitakoa errespetatuz eta horiek besterik ahalbidetzen ez dutenean izan ezik; lanbidearen usadio eta ohituretara; eta, azkenik, zuzenbide osagarri gisa, Langileen Estatutura, baldin eta erregulazio hori bateragarria bada lan-harreman berezi horren izaera eta berezitasunekin¹²¹³.

2. Printzipio gidariak, eskubideak eta betebeharrak

Arestian aipatutakoa berretsiz, abokatuak funtsezkoak dira gizartean, justiziaren bermatzaile gisa, eta haien jarduna gaizki ororen konfigurazio etiko eta moralarekin loturik doa. Interes horien berme gisa, legea eta kode profesionalak dira abokatu bati eskatzen zaizkion betebeharren bermatzaile. Hala, aurrerago sakonago ikusiko ditugun sekretu profesionala eta konfidentzialtasuna dira abokatuak errespetatu beharreko oinarritzko printzipioak¹⁴, baina hauek ez dira bakarrak. Izan ere, AEO 1.3. artikulua

¹¹ FERNÁNDEZ LEÓN, Óscar, “La importancia de la deontología para el abogado” *Legal Today*, 2018. (2024.06.09an ziurtatuta, helbide honetan eskuragarri: <https://www.legaltoday.com/gestion-del-despacho/gestion-del-conocimiento/la-importancia-de-la-deontologia-para-el-abogado-2018-02-06/>).

¹²1331/2006 Errege Dekretua, Abokatuen bulego indibidual edo kolektiboetan zerbitzuak ematen dituzten abokatuen lan-harreman berezia arautzen duena.

¹³ PEREZ CAMPOS, Ana Isabel, “Fuentes de la relación laboral especial de los abogados”, SEMPERE NAVARRO, Antonio Vicente, *Practico Laboral*, V-lex, 2024.

¹⁴ BERIZZO, Ines, “La colisión de deberes y el deber de secreto profesional del abogado”, *Comillas Unibersidad Pontifice*. 2021, 8-9. or. (2024.06.09an ziurtatuta, helbide honetan eskuragarri: <https://repositorio.comillas.edu/xmlui/handle/11531/49326>).

sekretu profesionala errespetatzeaz gain, abokatuen independentzia, askatasuna, duintasuna eta baita osotasuna errespetatu behar dituztela dio¹⁵.

Abokatuen jardunari dagokionez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren (aurrerantzean, BJLO) 542.2 artikulua honako hau ezartzen du: *“En su actuación ante los juzgados y tribunales, los abogados son libres e independientes, se sujetarán al principio de buena fe, gozarán de los derechos inherentes a la dignidad de su función y serán amparados por aquellos en su libertad de expresión y defensa”*¹⁶.

Abokatutzaren Kode Deontologikoari dagokionean ordea, bere lehenengo artikulua dio abokatutzan diharduten gizon eta emakumeek lanbidearen printzipio etikoetan oinarritutako deontologia errespetatu behar dutela. Deontologiaren iturri nagusiak Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra, Europako Abokatutzaren Kode Deontologikoa, Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoa, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak onartua eta, hala badagokio, Elkargoen Kontseilu Autonomikoei onartua dira. Arau deontologikoak aplikagarri zaizkie, halaber, jardunekoak ez direnei eta inskribatuta daudenei ere¹⁷.

Abokatutzaren lanbidea abokatuaren eta bezeroaren arteko elkarrenganako konfiantzan oinarritzen da. Fidagarritasunaren funtsezko izaera hori ziurtatzeko, beharrezkoa da abokatuen jarduna zenbait printzipiotan oinarritzea. Bada, hori lortu ahal izateko abokatuak, gutxienez, isilpean eta leialki jardungo duela bermatu beharko dute, arduraz eta gaitasunez, askatasunez eta independentziaz. Jarduteko printzipio horiek beharrezko mekanismoa dira herritar orok abokatuarengan konfiantza jartzeko. Hauek betetzea ezinbestekoa da, izan ere, hauetako printzipioen batean huts egiten bada, bezeroak duen babes eraginkorrerako eskubidea urratzeko aukera egon daiteke¹⁸.

¹⁵ Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuko 1.3 artikulua.

¹⁶ Botere Judizialaren Lege Organikoko 542.2 artikulua.

¹⁷ Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2019ko martxoaren 6an onartzen duen Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoko 1.1. artikulua.

¹⁸ GARRIDO SUARES, Hidalgo, “Confianza y abogacía: principios deontológicos”, *Universidad Carlos III de Madrid*, 2012, 178 or.

Bestalde, abokatuek bezeroengan jarri behar duten arreta guztia azalduz, beraiek ere eskubideak dituztela aipatu behar da. Honako hau, zehazki AEO 86. Artikuluak jasotzen du, *“Derechos de los colegiados”* titulupean. Bertan, elkargokideen eskubideak, elkargo bakoitzaren estatutu partikularretan aurreikusitakoaren arabera izango direla dio. Dena dela, kudeaketa korporatiboan parte hartzea eta zuzendaritza-karguak eskatzeko, bozkatzeko eta horietan sartzeko eskubideak baliatzea; elkargoari bere duintasunaren, independentziaren eta lanbidean jarduteko legezko askatasunaren babesa eskatzea, bai eta familia-bizitza eta lanbide-jarduna uztartzeko duen eskubidearena; elkargoko organoek hartutako erabakien berri izatea eta elkargo bakoitzaren estatutu partikularrek ematen dizkieten gainerako eskubideak aipatzen dira artikuluan.

Baina, zuzenbideko bai eta bizitzako hainbat kasutan ematen den moduan, eskubideak dauden bezala, betebeharrak ere egongo dira, txanpon baten bi aldeetan modura. Kasu honetan, abokatuek beren jardunean dituzten betebeharrak aipamen bat egin beharra da. Lehenik eta behin, printzipio gidarien atalean aipatu moduan, EAKD 1.1. artikuluan aipatutakoa berretsi behar da, kontuan izanik, abokatuen betebeharrak aipamen bat egiten dela: *“Los hombres y mujeres que ejercen la Abogacía están obligados a respetar la Deontología inspirada en los principios éticos de la profesión (...)”*.

Lehen artikulua honez gain, estatutuko bederatzigarren tituluko (*“Organización colegial de la Abogacía”*) hainbat artikulua ere aipatzekoak dira, geure kasuan 87. Artikuluak kolegiatuaren obligazioak zeintzuk diren aipatzen dituelarik. Estatutuetako arauak eta arau deontologikoak betetzea; bulego profesionala irekita edukitzea eta lanbidean ohikotasunez aritzea; eta egoitza profesionala atxikita dagoen elkargoari jakinaraztea besteak beste¹⁹. Estatutuko 21. artikulua sekretu profesionala gordetzeari dagokion betebeharra azaltzen du: *“(...)guardar secreto de todos los hechos o noticias que conozcan por razón de cualquiera de las modalidades de su actuación profesional (...)”*, hauen inguruan ezer esatera beharrik. Hemengo honek beraz argi erakusten digu sekretu profesionalak ez duela soilik abokatu-bezero harremanean eraginik, eta azaltzen nindoan moduan, abokatu batek beste abokatu batekin dituen negoziazio edo bestelako

¹⁹ Espainiako Abokatuzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuko 87. artikulua.

harremanetan ere errespetatu behar dela. Azken honen inguruan VI. Tituluko 59. Artikuluak hitz egiten digu.

Azken artikulua hauei loturik, abokatuei eska dakizkiekeen betebeharren barruan, BJLOren 542.3 artikulua ere, sekretupean gordetzeko betebeharra arautzen du. Lan honen oinarrietako bat dena (geure kasuan ez abokatu-bezero harremanean baizik eta abokatuek beren arteko negoziazio harremanetan): *“Los abogados deberán guardar secreto de todos los hechos o noticias de que conozcan por razón de cualquiera de las modalidades de su actuación profesional, no pudiendo ser obligados a declarar sobre los mismos”*²⁰.

Bada, sekretu profesionala erdigunean jarri dugularik, hemengo honek zertan datzan sakonduko dut gero, konfidentziasunari ere aipamen bat eginez. Baina lehenik abokatuek dituzten harremanen azalpen bat ematea ezinbestekoa da.

III. ABOKATUEN ARTEKO HARREMANAK: GATAZKEN KONPONBIDERAKO BIDEA

Argi gelditu zaigu abokatua profesional independentea dela, eta bere jarduna bete dezan, ezinbestekoa dela beste alderdi bat egotea. Hau, herritar bat, auzitegi bat, edo kolegioa izan daitekeelarik. Gainera, abokatuaren funtsezko zeregina gatazkak konpontzea den honetan, honek, hainbat bide ditu bere bezeroaren interesak defendatu ahal izateko; aholkularitza bidez, epaiketetan beren interesak defendatuz edo bitartekaritzaren bidez egin dezakeelarik²¹.

Azken hau bereziki azpimarragarria da, izan ere, abokatuaren berezko lana auzitegiaren bezeroaren interesak epailearen aurrean defendatu eta bere erabakiari itxarotea uste dugun

²⁰ BERIZZO, Ines, “La colisión de deberes y el deber de secreto profesional del abogado”, *Comillas Unibersidad Pontifice*, 2021, 9. or. (2024.06.09an ziurtatuta, helbide honetan eskuragarri: <https://repositorio.comillas.edu/xmlui/handle/11531/49326>).

²¹VILA RAMOS, Beatriz, “Deontologia profesional”, GARRIDO, Fernando, *Normas Deontologicas Regulatoras de las obligaciones y relaciones del abogado con el colegio, con los tribunales, con los compañeros y con los clientes*, Dyson, 2013, 79. Or.

honetan, prozesu honekiko mesfidantza geroz eta handiagoa da, honek dakartzan berandutze eta eraginkortasun faltagatik.

Horixe da zehazki Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 2021. Urteko maiatzeko txostenean (“Los Españoles y la Justicia”) dioena²². Bertan, Espainian bizi diren 18 urtetik gorako biztanleriaren 1.000 elkarrizketa adierazgarriren lagin bati buruz egindako azterlan batean lortutako emaitzak jasotzen dira, eta espainiarren % 72ak justizia motela dela dioela egiaztatzen da. Moteltasun horren ondorioz, askok Justizia Administrazioa saihestearen aldeko apustua egiten dute²³. Horrek ondorioz, gatazkak konpontzeko bestelako bideetarako atea irekitzen ditu, abokatuen arteko negoziazioa horietako bat delarik.

Harreman hauek, hau da, abokatuen beste alderdiarekin dituzten harremanek prozesua nola amaituko den definitzen dutela esan dezakegu. Izan ere, askoz interesgarriagoa da alde aurretik bi alderdiei kalte gutxien ekarriko dien erabaki bat hartzea, ostera epaileak alderdi bakarrari kalte larriago bat eragin baino (berandutzeak kontuan izan gabe). Beraz, gatazkak konpontzeko aterabide nagusia abokatuek epaiketetan defendatu beharreko interesak baino, aurretik dituzten komunikazio eta negoziazio guztiak dira.

Bada, abokatuen eskubide eta obligazioak aipaturik, eta negoziazioen garrantziari sarrera bat eginez, abokatuek bezeroekin zer harreman duten, bai eta abokatuek beren artean zein harreman mantendu behar luketen azaltzea ezinbestekoa da. Azken hau, nire lanaren ardatz den abokatuen arteko konfidentzialtasunaren abusua nola ematen den ikusteko.

1.1 Abokatu-bezero harremana

²² PODER JUDICIAL ESPAÑA, “Encuesta “Los Españoles y la Justicia”. Mayo de 2021”, 2021, (2024.06.09an konprobatuta, hurrengo helbidean eskuragarri: <https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Transparencia/Buen-Gobierno--Etica-Judicial-y-Comision-de-Etica-Judicial/Encuestas-de-satisfaccion/Encuesta--Los-Espanoles-y-la-Justicia---Mayo-de-2021>).

²³ SERRANO HOYO, Gregorio; RODRÍGUEZ GARCÍA, Nicolás; RUIZ LÓPEZ, Cristina; TIerno BARRIOS Selena, *Justicia Restaurativa y Medios Adecuados de Solución de Conflictos*, Dykinson, 2022, 211. Or.

Abokatu-bezero harremana, arauturik dagoen harreman bat da, abokatuak, bezeroa aholkatzeko edo/eta hura ordezkatzeko eskaera onartzen duen unetik aurrera sortzen dena (esparru judizial edo judizioz kanpoko batean). Ondorioz, automatikoki sortzen dira betebeharrak eta eskubideak²⁴.

Hori guztia, idatzizko kontratu baten bidez (jurisprudentzia jarraituz mandatu eta errentamendu kontratua)²⁵ edo korporazio profesionalek beren kideen eskura jartzen dituzten enkargu-orrien bidez formalizatzen den kontuan izan gabe. Izan ere, Espainiako ordenamenduan, abokatuaren eta bezeroaren arteko harremana kontratu izaerakoa da, baina, kontratu bat edo enkargu-orri hori formalizatua ez izatea, komenigarria izan daitekeen arren, ez da nahitaezkoa²⁶.

Honen oinarrian hala eta guztiz ere, abokatuaren eta bezeroaren arteko harremanean ezaugarri nagusi diren konfiantza, eta “intuitu personae” daude, hau da, mandatua pertsona jakin bati ematea. Bada, konfiantzari dagokionean, funtsezkoa da abokatu-bezero harreman guztietan, izan ere, bezeroak bere abokatuaren esku uzten ditu bere ondareari eta bere eremu pertsonalari eragiten dieten gai oso delikatuak. Abokatuak azken xehetasuneraino ezagutu beharko du agindutako gaia, egoki eta arduraz aholkatzeko²⁷.

Honen adierazgarri da AKD 4.1. artikulua: *“la relación entre el cliente y su abogado se fundamenta en la confianza y exige de éste una conducta profesional íntegra, que sea honrada, leal, veraz y diligente”*. Aldiz, *“intuitui personae”* delakoari dagokionez,

²⁴ VILLARIJ, Montserrat, *Negociación de Disputas Legales: A la sombra del litigio*, Bosch Editor, 2018, 102. Or.

²⁵ Auzitegi Gorenaren, Zibil-arloko salako, 2014ko maiatzaren 20ko 283/2014 Epaia. Hurrengo dio: *“(…) Como recuerda la jurisprudencia (entre las más recientes, STS de 5 de junio de 2013 (RJ 2013, 4970), rec. nº 301/2010 y las que en ella se citan), la relación contractual existente entre abogado y cliente se desenvuelve normalmente en el marco de un contrato de gestión que la jurisprudencia construye, de modo no totalmente satisfactorio, con elementos tomados del arrendamiento de servicios y del mandato (...)”*.

²⁶ VILLARIJ, Montserrat, *Negociación de Disputas Legales: A la sombra del litigio*, Bosch Editor, 2018, 102. Or.

²⁷ ANDINO LOPEZ, Juan Antonio, *El Secreto Profesional del Abogado en el Proceso Civil*, Bosch Editor, 2014, 28. Or.

abokatuaren alderdi subjektiboaz ariko ginateke, abokatuak kontratatzerako garaian ezinbesteko izan daitekeena²⁸.

Hala eta guztiz ere, bi ezaugarri hauez gain, badira AKD aipatzen dituen bestelako ezaugarri batzuk ere, hauek 12. Artikuluan jasotzen direlarik. Beste hitz batzuetan esatearren, AKD 12. Artikuluak abokatuak bezeroekin izan behar duen harremanaz dihardu. Hala, aipaturiko konfiantzaz gain, ezaugarri orokorreki dagokienez, abokatuari enkargugilearen gaitasun eta nortasuna egiaztatzea dagokiola aipatzen da, defentsa eta gomendio lanak profesionaltasunez bete beharko dituela, bezeroaren enkargua amaieraraino betetzea dagokiola...

Identifikazio eta informazio lanei dagokienez bestalde, abokatuak bezeroaren aurrean bere burua aurkeztu edo identifikatu behar du, bezeroaren jakinaren gainean besteak beste gatazka edo pretentsioari buruzko aukerak azaldu behar ditu, honorarioen prezioaren berri eman behar du, doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea jakinarazi behar dio edo eta enkarguaren bilakaeraren berri ematea dira abokatuaren zereginetakoa bezeroaren harremanean.

Azkenik, 12. Artikulu honen aipamenarekin amaitzeko, interes gatazka kasuak ere arautzen dituela aipatu behar da. Hala, abokatuak ezin izango ditu gauzatu dituen, edo gauzatzen ari den beste kasu batekin interes kontrajarriak dituen gatazkek aurrera eraman; horrez gain, aurreko bezero baten aurkako enkarguak ezin izango ditu hartu; edo eta bezeroak elkartzen diren kasuan hauen artean interes gatazka hasten bada, abokatuak ez du esku hartzea posible izango. Dena dela, aipatu moduan, AKD 12. Artikuluak orain aipaturiko hiru zatiak banan bana aztertzen ditu, *A* zatiak arau orokorrak jasotzen dituelarik, *B* zatiak identifikatzeko eta informatzeko betebeharrak eta *C* zatiak azkenik interes gatazkari buruz hitz egiten du.

1.2 Abokatuen arteko harremana

Bestalde, abokatuen arteko harremanak deontologiak arautzen ditu, ez abokatuak gainerako herritarren baldintza edo izaera desberdinekoak direlako, baizik eta beren

²⁸ *Idem*, 29-30. or.

zerbitzu profesionaleko lana besteen intereserako egiten dutelako, eta, beraz, gizarte osoak parte hartzen duelako²⁹. Ondorioz, lan-harreman berezi honen erregulazioak berekin dakar Langileen Estatutuan jasotzen den lan-harreman arruntaren arauketaren erregulazio espezifiko eta bereizia ezartzea, besteen konturako lan-harremanak definitzen dituzten oharrak biltzen direlarik (borondatezkotasuna, ahaidetasuna, ordainsaria eta lanaren fruituak bere egiten dituen beste pertsona bat antolakuntzaren eta zuzendaritzaren eremuan sartzea)³⁰.

Auzitegi Gorenak horren guztiaren berri eman du. Hala ere, azaroaren 17ko 1331/2006 Errege Dekretua dago, bulego indibidualetan edo kolektiboetan lan egiten duten abokatuen lan-harreman bereziak arautzen dituen eta arau deontologiko batzuk jasotzen dituen. Hitzaurrean harremanaren espezialitatea justifikatzen duten elementu bereizleak azaltzen dira, harreman triangeluarra deritzona.

Abokatutza lanbidea da, lankideen artean harreman profesional berezia ematen duen bakarretakoa. Izan ere, biltzar zientifiko eta profesionalekin erlazionatzeaz gain, elkarren artean borrokatzen dira, lankidetzan aritzen dira edo aholkuak ematen dizkiete elkarri. Gainerako harreman profesionaletan gertatzen ez dena³¹.

1331/2006 Errege Dekretua aipaturik, abokatuen eta bulegoen artean ezartzen den lan-harremanak berariazko erregulazioa izatea justifikatzen duten berezitasunak edo espezialitateak, 1331/2006 Errege Dekretuaren zioen azalpenean ezarritakoaren arabera, alde batetik harreman triangeluar bat dira, bulegoaren titularra, bezeroa eta abokatu, zalantzarik gabe abokatuen eta bulegoen arteko lan-harremanaren garapena baldintzatzen duena daudela; eta abokatuek bulegoetan lan egiteko bete behar dituzten baldintzak daude

²⁹ SÁNCHEZ STEWART, Nielson, “Los Principios Inspiradores de la Deontología: Las relaciones del abogado con sus compañeros de profesión”, *Diario La Ley*, 8803 zk., 2016.

³⁰ PEREZ CAMPOS, Ana Isabel, “Fuentes de la relación laboral especial de los abogados”, SEMPERE NAVARRO, Antonio Vicente, *Practico Laboral*, V-lex, 2024.

³¹ Juspedia, “Relaciones del Abogado con sus compañeros de profesión”. (2024.06.9an konprobatuta, helbide honetan eskuragarri: <https://juspedia.es/apuntes/deontologia/relaciones-abogado-companeros-profesion/>).

bestetik, izan ere, aplikatzekok diren lan-arauez gain, lanbideari buruzko arauak aplikatuko zaizkie abokatuei, estatutu-arauak eta arau etiko eta deontologikoak barne³².

Abokatuen arteko harremanetan, badira bete betebeharreko jokabide-arau batzuk. Lehenik eta behin, abokatuen arteko harremanetan nagusi izan behar duen oinarri gisa, AKD-ko 11. artikulua ezartzen duen hurrengo hau: “*Deben mantener quienes ejercen la Abogacía recíproca lealtad, respeto mutuo y relaciones de compañerismo*”. Bestalde, Europako Abokatutzaren Kode Deontologikoaren 5.1 artikulua haien arteko adiskidetasun-harremanen alde egiten du. Gainera, gure gizartean eskatzen diren beste jarduera batzuk nabarmentzen dira, hala nola: sartu berriei esperientzia handiagoa duen abokatu batek eman diezaiekeen laguntza eskuzabala; "lankideen artean egon behar duen errespetua", horregatik saihesten baitira, adibidez, aipamen pertsonalak haien izen ona zikindu dezaketen komunikazio edo iruzkinetan; edo kontrako alderdiaren askatasunaren eta independentziaren defentsa, bere bezeroen aurrean defendatzen saiatu beharko baitu.

Gainera, AKD jarraituz, badira prozedura espezifiko bat eskatzen duten jarduerak ere: Abokatu batek lankide baten aurkako akzio bat hasteko asmoa badu, abokatu horrek kolegioari jakinarazi beharko dio aurretik³³. Zerbitzu-sarien erreklamazioa bada, abokatuak, lehenik eta behin, erreklamazio hori judizioz kanpo ebazten saiatu beharko du (hau da, transakzioaren, bitartekaritzaren edo elkargoaren arbitrajearen bidez)³⁴.

Abokatuen arteko bilerekin dagokienez, bezeroekin edo bezerorik gabe, ahaleginak egingo dira bilera horiek esku hartzen duten abokatuentzat egoera pribilegiatua ez den leku batean egiteko. Akordiorik ez balego, leku neutroa izango litzateke, adibidez, Abokatuen Elkargoaren bulegoak. Horrez gain, zenbait jarraibide ezarri dira egoera posible horiek argitzeko³⁵.

³² PEREZ CAMPOS, Ana Isabel, “Fuentes de la relación laboral especial de los abogados”, SEMPERE NAVARRO, Antonio Vicente, *Practico Laboral*, V-lex, 2024.

³³ Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2019ko martxoaren 6an onartzen duen Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoko 11.2. artikulua.

³⁴ Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2019ko martxoaren 6an onartzen duen Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoko 11.6. artikulua.

³⁵ Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2019ko martxoaren 6an onartzen duen Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoko 11.7. artikulua.

Azkenik, garrantzitsua da adieraztea, begi-bistakoa dirudien arren, "ez dela bezeroaren defentsarekin edo aholkularitzarekin jarraitu behar bezeroak baimena ematen ez badio eta hitzartutako akordioa errespetatzen ez bada" kontrako alderdiaren defentsa duen profesionalarekin³⁶.

IV. ABOKATUEN ARTEKO NEGOZIAZIOTAN APLIKAGARRI DEN ARAUDIA

Orain arte egindako sarrerarekin, arazoaren oinarrian dauden xedapenei aipamena egitea gustatuko litzaidake, betiere kontuan izanik nire lanaren ardatza abokatuak beste abokatu batzuekin dituzten harremanez abusatu eta informazio hori auzian frogatu gisa aurkeztean zer gertatzen den aztertzea dela. Horretarako, alde batetik arestian aipaturiko abokatuaren egoera juridikoa zein den ikusi dugu eta bestetik, ostera, aipatuko ditudan beste kontzeptu batzuei erreferentzia egingo diet; sekretu profesionala edo frogabideak esaterako.

Horretarako, Estatu mailan bai eta Europa mailan dauden artikulua aplikagarriei aipamen txiki bat eginez, ondoren lanaren ardatz den epaian aplikatzen diren hainbat artikulua ere aztertuko ditut.

1. Estatuko xedapen aipagarriak

1.1 Espainiako Konstituzioa

Estatuko legedia gorena ardatz gisa hartuko dugu azterketa juridikoan, eta hala 17.3. artikulua aipatzen hasiko gara, zeinak abokatuaren laguntza jasotzeko eskubidea jasotzen duen. Honako hau doakoa izan daiteke 119. artikulua araberan, denak Konstituzioko 24. artikulua jasotzen duen babes eraginkorraren printzipioaz babesturik daudelarik. Nolabait, geure gaiaren ardatz den araua, azken finean, abokatuaren laguntza ez bada Konstituzionalki babestua, gainerako guztiak ezer gutxitarako balioko du eta.

³⁶ Espainiako Abokatuzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2019ko martxoaren 6an onartzen duen Espainiako Abokatuzaren Kode Deontologikoko 11.14. artikulua.

Horrez gain, sekretu profesionalaren kontzeptua beranduago ikusiko dugun arren, honi dagokionez, ezinbestean aipatu behar dira 18. eta 24. Artikuluak (intimitatearen eta babes eraginkorrerako eskubidearen oinarritzko eskubideak jasotzen dituzte), zeinak 17. Artikuluaren moduan, hauen urrapen batek oinarritzko eskubideen bortxaketa suposatuko luketen.

Intimitateari dagokionez, 18.1. artikulua dio “*Se garantiza el derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen*” eta bere hirugarren atalean aldiz, komunikazioen sekretua bermatzen dela aipatzen da, bereziki, posta, telegrafia, eta telefono bidezkoak, beti ere, ebazpen judizialik ez bada³⁷. Artikulu honen xedapenen arabera beraz, sekretu profesionalarekin guztiz loturik dauden arauak aurkitu ditzakegu eta argi ikusi ebazpen judizialik ezean delitu baten eta oinarritzko eskubideen urrapen baten aurrean egongo garela (Zigor Kodean ondoren azalduko dut non dagoen tipifikatua).

Praktikan, bezero batek abokatuaren laguntza jasotzean, abokatu profesionaltasunez jokatu duela usteko da, bere intimitatea errespetatuz eta sekretu profesionala gordez konfidentzialtasun osoz. Hemengo hau, ez da posible izango ordea babes eraginkorrerako printzipioa gordetzen duen artikulurik gabe.

Hala, 24. Artikulua da azkenik aipatu beharreko artikulua, babes eraginkorrerako eskubidea jasotzen baita bertan, eta sekretu profesionalaren aipamen bat egiten da, ez deklaratzeko salbuespena dagoelarik. Gainera, artikuluko bigarren zatiak jasotzen duelarik, ez deklaratzeko aukera ere oinarritzko eskubide bat da (24.2. art.).

Bestalde, ondoren aipatuko dugun epaian, besteak beste, 9. eta 103. Artikuluak ere topatu ditzakegu. Hauek, bereziki garrantzitsuak direlarik arauen hierarkiari dagokienez (EK 9.3. Art.: “*La Constitución garantiza el principio de legalidad, la jerarquía normativa, la publicidad de las normas, la irretroactividad de las disposiciones sancionadoras no favorables o restrictivas de derechos individuales (...)*”). Izan ere, aztertzen ari garen arazoan eta epaiaren oinarrian dagoenak (egokienak diren frogabideak aurkezteko eskubidea eta abokatuaren arteko konfidentzialtasunaren abusua), maila ezberdinetako bi arauen arteko ponderazioa egitea eskatzen digu: Konstituzioko 24. Artikuluaren babes

³⁷Espainiako Konstituzioko 18.3. artikulua.

eraginkorrerako eskubidea eta AEO eta AKD jasoriko abokatuek sekretu profesionala mantentzearen artekoa.

Epaian aipatzen den moduan, froga oinarritzko eskubideak urratu gabe lortu bada, epailearengatik libreki baloratua izan daiteke, froga lortu duen horren erantzukizun zibil, penal edo diziplinarioa alde batera utzirik. Azkenean froga irregularra izango da baina ez eraginkortasunik gabea. Hau guztia Konstituzioak frogabiderako eskubideari ematen dion oinarritzko izaeran datza, bai eta babes eraginkorrerako eskubidean ere³⁸.

Amaitzeko, aipatu, abokatuaren independentziaren funtsezko elementua dela sekretu profesionala mantentzea, horrekin loturik doalarik babes eraginkorra jasotzeko eskubidea, inolako babesgabeziarik ez emateko³⁹.

1.2 Botere Judizialeko Lege Organikoa

Botere Judizialeko Legeko Organikoak ere badu zeresana planteatzen zaigun arazoa honetan, abokatuen jardunean oinarritzko baita. Hemengo honek ordea abokatuek beren jardunean bete beharreko obligazio eta eskubideei buruz hitz egiten digu. Sekretu profesionala gordetzeko betebeharra ere aipatzen delarik 542.3. artikuluan.

Halaxe dio 542. Artikuluak: “1. *Corresponde en exclusiva la denominación y función de abogado al licenciado en Derecho que ejerza profesionalmente la dirección y defensa de las partes en toda clase de procesos, o el asesoramiento y consejo jurídico.* 2. *En su actuación ante los juzgados y tribunales, los abogados son libres e independientes, se*

³⁸Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko, Lan-arloko salako, 2023ko maiatzaren 26ko 6251/2023 epaia.

³⁹Auzitegi Gorenaren, bigarren salako, 2018ko urriaren 10eko 451/2018 Epaia. Hurrengoa dio: “*Desvelar lo que debe ser secreto se traduce pues en una lesión del derecho a la intimidad del cliente, pero también al derecho a la tutela judicial sin sufrir indefensión. La amplitud de las posibilidades de defensa está vinculada al momento pre procesal ya que en el mismo la futura parte del eventual proceso ha de ser libre de suministrar al letrado que le asiste toda la información -incluida la perjudicial- que garantiza la efectiva defensa. No cabe olvidar que al abogado alcanza también la exención del deber de denunciar ex art 263 de la Ley de Enjuiciamiento Criminal. Claro es, en todo caso, sin perjuicio de las limitaciones legales en relación con la configuración de tal secreto profesional, que aquí son de innecesaria consideración*”.

sujetarán al principio de buena fe, gozarán de los derechos inherentes a la dignidad de su función y serán amparados por aquéllos en su libertad de expresión y defensa. 3. Los abogados deberán guardar secreto de todos los hechos o noticias de que conozcan por razón de cualquiera de las modalidades de su actuación profesional, no pudiendo ser obligados a declarar sobre los mismos”.

Beraz, artikuluko hirugarren zatian, abokatuak sekretu profesionala gordetzeko duten beharra azaltzen zaigu. Hauen inguruan ezer esatera beharturik daudelarik. Dena den, sekretu profesionalaren zatian sakonduko dugu honetan.

1.3 Prozedura Kriminaren Legea

Prozedura Kriminaleko Legearen aipamena, sekretu profesionalari loturik egin behar da, eta 262. eta 263. Artikuluaren aipamenarekin hasi. Bada, Prozedura Kriminalaren Legeko 262. Artikuluak hurrengo dio: *“Los que por razón de sus cargos, profesiones u oficios tuvieren noticia de algún delito público, estarán obligados a denunciarlo inmediatamente (...)”* baina hurrengo artikulua aldiz abokatu edo prokuradoreei salbuespena ezartzen die, euren bezeroengandik jasotzen dituzten jarraibide edo azalpenei dagokienez⁴⁰. Beraz abokatu eta prokuradoreek status berezia bat dutela esan genezake, zeinak behin baino gehiagotan aipatu moduan, eskubideak ematen dizkien moduan, obligazioak ere ezartzen dizkien: sekretu profesionala mantentzea.

Deklaratzearekin loturik, lege bereko 410. Artikuluak dio Espainiako lurraldean bizi diren guztiak, epaileak egindako deialdira joateko betebeharra izango dutela, galdetzen zaienari buruz horiek dakiten guztia adieraz dezaten, baldin eta horretarako zitazioa egiten bazaie legean ezarritako formalitateekin⁴¹. Baina arestian aipatu moduan, salbuespena dago hemengo honetan ere. Legeko 416. artikulua bere bigarren atalean dio, auzipetuaren abokatuak, auzipetu horrek defendatzaile gisa abokatuari azaldu dizkion egitatei dagokienez adierazpenak egiteko betebeharretik salbuetsirik daudela⁴².

⁴⁰ Prozedura Kriminalaren Legeko 263. artikulua.

⁴¹ *Idem*, 410. art.

⁴² *Idem*, 416.2. art.

Hau guztiarekin loturik ere aipamena egin behar da Prozedura Zibileko Legeko 371.1. artikulua dioenera, sekretuari erreferentzia egiten baitio: *“lekukoak galdeketaren egitatei buruz sekretua gordetzeko beharra bada, bere egoera edo lanbidearengatik, horixe adieraziko du arrazoiak emanez, eta auzitegiak zuzenbidean egoki dena ebartziko du, probidentzia bidez adierazpena egiteko ezetzaren oinarria kontuan izanik. Lekukoa erantzuna emateak askatu bada, hori jasoko da aktan”*.

1.4 Prozedura Zibilaren Legea eta 36/2011 legea, urriaren 10ekoa, lan-arloko jurisdikzioa arautzen duena.

Prozedura Kriminaleko Legea aipaturik, eta Prozedura Zibileko Legeari aipamen eginik, azken honetan sakonago sartuko gara, lan arloko jurisdikzioa arautzen duen 36/2011 Legea ere aztertuz. Izan ere, Prozedura Zibileko Legearen 4. Artikuluak lege honek duen ordezkotza aipatzen du, eta hala, lan-prozesuetan prozesu hori arautzen duen xedapenik ez bada lege hau ordezkotza aplikatuko dela aipatzen da⁴³. Beraz lan arloko zuzenbide prozesala autonomia dela ikusi dezakegu, gainerako arau-multzoekin zerikusirik ez duelarik eta PZL osagarri duelarik⁴⁴.

36/2011 lege honen aipamena, kasu honetan, ondoren aipamena egingo dudana epaiaren ondoriozkoa da. Izan ere, 2023ko maiatzaren 26ko 6251/2023 Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko epaia hau, lan arloko salakemandakoa da, eta beraz, lege honen bidez arauturik dago, epaian hainbat artikulua aipatzen direlarik.

Prozedura Zibileko Legea aipatzen hasiz, epaian aipatzen diren artikulua aztertuko ditugu lehenik. Hala, 22. Artikuluak prozesua amaitzeari buruz dihardu, prozesutik kanpo betetzeagatik edo gertatze bidez objekturik ez izateagatik. Hala artikuluko lehenengo hiru ataletan prozesuz kanpoko adostasuna egon den kasuetan hau auto bidez amaitzen bada epaiaren indar bera izango duela aipatzen du. Prozesuak nola funtzionatzen duen azalduz. Adostasun extrajudiziala egon den kasurako beraz ezinbesteko artikulua da.

⁴³ Prozedura Zibilaren Legeko 4. artikulua.

⁴⁴ ROMERO PRADAS, Maria Isabel, *Derecho Procesal Laboral. Parte General y Parte Especial*, Tirant lo Blanch, 2021, 41 Or.

216 eta 218.1. artikuluek ostera, prozesua berari buruz hitz egiten digute. 216. Artikuluak geure gaia den frogabideei buruzkoa da, auzitegi zibilek auziak alderdiek ekarritako egitate, froga eta uzion arabera erabakiko dituztela dioelarik. 218.1. artikulua aldiz, epaien zehaztasun eta kongruentziari buruzkoa da, hauek argiak izan behar dutela azaltzen duelarik.

Epaian aipatzen den azken artikulua aldiz, 283.3. artikulua da, frogak eskatzeko ekimenari buruzkoa eta bere hirugarren atalak legeak debekatutako edozein jarduera froga gisa aurkeztea debekatzen du.

36/2011 legeari dagokionean, lantzen ari garen epaian, behin baino gehiagotan aipatzen dira lege honetako hainbat xedapen. Besteak beste 193.a. artikulua erregutze-errekurtsoaren objektua zein den zehazten duena. Baina objektua zein den zehaztu aurretik, erregutze-errekurtsoa izaera itzultzaileko aurkaratze-bide bat dela esan behar da, lan-arloko epaitegiek edozein prozesu motatan emandako epai (eta auto jakin) guztien aurka aurreikusia, eta aukera ematen duena alderdiek alegazioak baino ez ezagutzeko. Alderdiek ezin dute alegatu errekurritutako ebazpenaren edozein akats (aparteko izaera ematen baitio honek), izan ere, egitatezko epaiketaren berrikuspena, alderdi mugaturen baten, dokumentu eta egitate berriak aurkezteko aukera ematen du, salbuespenezko kasuetan⁴⁵.

Azkenik frogabideei dagokienez lege honek arautzen duen artikulua garrantzitsuenetakoa baten aipamena ere egin behar da, 90. Artikuluarena zehazki, frogabideen onarpenari buruzkoa.

Kasu honetan, lehenengo zatiak hurrengo dio: *“Las partes, previa justificación de la utilidad y pertinencia de las diligencias propuestas, podrán servirse de cuantos medios de prueba se encuentren regulados en la Ley para acreditar los hechos controvertidos o necesitados de prueba, incluidos los procedimientos de reproducción de la palabra, de la imagen y del sonido o de archivo y reproducción de datos, que deberán ser aportados por medio de soporte adecuado y poniendo a disposición del órgano jurisdiccional los*

⁴⁵ ROMERO PRADAS, María Isabel, *Derecho Procesal Laboral. Parte General y Parte Especial*, Tirant lo Blanch, 2021, 387. or.

medios necesarios para su reproducción y posterior constancia en autos”. Baina bigarren zatiak aldiz, zuzenean edo zeharka oinarrizko eskubidek edo askatasun publikoak urratzen dituzten prozeduren bidez lorturiko frogak onartuko ez direla dio.

1.5 Kode Zibila

Prozedura zibileko legea aipaturik, eta aipaturiko epaia lan arlokoa dela jakinda. Epaian bertan aipatzen diren Kode Zibileko (aurrerantzean KZ) 1544 eta 1258. Artikuluei ere aipamen bat egin behar zaie.

Lehenengoari dagokionean, obra edo zerbitzuen errentamenduan, alderdietako batek bere gain hartzen du beste alderdiarentzat obra gauzatu edo zerbitzua egiteko betebeharra, prezio jakinaren truke. Beraz kasu honetan abokatuak bere zerbitzua ematearen kasuan egongo gara, hau prezio baten truke ordainduko dena. Kontratua bere horretan aipaturiko 1254. Artikuluak arautu (*“Kontratua bada izan, pertsona bat edo gehiago ados daudenetik, beste pertsona bati edo batzuei begira, euren burua gauzaren bat ematera edo zerbitzuren bat egitera behartzeko”*) eta 1258. Artikuluak kontratuak adostasun hutsaren bidez betetzen direla dio, eta, harrezkero, bete beharrekoak dira, bai beren beregi itundutakoa betetzeari begira, baita, kontratuaren izaeraren arabera, onuste, usadio eta legearekin bat datozen ondorio guztiei begira ere.

Azkenik, 1809. Artikuluak transakzioa zer den azaltzen du, alderdiek adostutako kontratu bat dela azalduz, horren bidez, zerbait eman, hitzeman edo atxikiz, auzia hastea eragozten dutelarik edo hasitakoari amaiera ematen diotelarik. Salbuespen prozesala da beraz.

1.6 Zigor Kodea

Zigor Kodeak egiten dituen aipamenetan, ezinbestekak aipatu beharra dugu 20.7. artikulua, zeina guztiz loturik dagoen orain arteko aipatzen joan garen sekretu profesional eta hau azalratzearekin. Bada, artikulua hau erantzukizun kriminalaren salbuesle bat da, zeina betebeharrak betetzean edo eskubide, ofizio edo kargu bat zilegitasunez baliatzen diharduenari aplikatuko zaion. Geure kasuan beraz, bere jardueran profesionalean diharduen abokatuari.

Salbueslea alde batera utziz, 199.2. artikulua lanagatiko sekretuak azaleratzeari buruzko delituak tipifikatzen ditu. Kasu honetan, profesionalak, bere isil gordetzeko edo erreserbako betebeharra hautsi eta beste pertsona baten sekretuak zabaltzen baditu, orduan, horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaiola aipatzen da, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere, eta lanbide horretarako desgaitasuna berezia, bi urtetik sei urtera artekoa.

Gainera, sekretu profesionala zabaltzeari dagokionez, Kodeak zigortu egiten du funtzionarioak administrazio publikoari eragiten dion informazioa ematea⁴⁶, abokatuak, prokuradoreak edo Justizia Administrazioari eragiten dion funtzionarioak egindakoa⁴⁷, defentsa nazionalari eragiten dion sekretua ezagutzen duenak egindakoa⁴⁸. Eta, beste testuinguru batean, erreserba gordetzeko betebeharra duenak enpresa-sekretuak zabaltzea, ezagutaraztea edo lagatzea, lehia leiala babestearekin lotuta⁴⁹.

1.7 Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra

Arestian aipatu moduan, Espainiako Abokatzaren lanbidea, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrean arauturik dago (bai eta hainbat kode deontologikok ezartzen dituzten arauetan) besteak beste. Eta geure lanaren ardatz den arazoarekin lotuz, sekretu profesionala Estatutuan non arautzen den aipatzea ezinbesteko dugu.

Bada, 21.1. artikulua jarraituz, sekretu profesionalari buruzkoa, abokatuak bezeroarekiko harremanetan konfiantza eta konfidentzialtasuna izateak bere jardura profesionalaren edozein modalitatearen ondorioz ezagutzen dituen gertakari edo albiste guztiak isilpean gordetzeko betebeharra duela dio, eta ezin izango dela haiei buruzko aitortzea egitera behartu (hau guztia Botere Judizialeri buruzko uztaiaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan oinarrituz).

⁴⁶ Zigor Kodeko 217. artikulua.

⁴⁷ Zigor Kodeko 466. artikulua.

⁴⁸ Zigor Kodeko 599. artikulua.

⁴⁹ Zigor Kodeko 279. artikulua.

Hurrengo artikulua ere bereziki aipagarriak dira, batez ere 22. Artikuluko lehenengo eta hirugarren atalak. Lehenengoari dagokionean, sekretu profesionalarekin jarraituz, hemengo honek abokatutzaren lanbidean profesional gisa jardutean ezagutu, igorri edo jaso dituen egitate, komunikazio, datu, informazio, dokumentu eta proposamen guztiak bere baitan hartzen dituela adierazten da. Hirugarren atalean aldiz, abokatutzako profesionalek beren bezeroekin, aurkakoeekin edo abokatutzako profesionalekin izandako elkarrizketak presentzialak zein edozein bitarteko telefoniko edo telematikoren bidez kok grabatu ahal izateko, hauek aurretik jakinarazi eta ados egotea ezinbestekoa izango da, guztiak sekretu-profesionalaren babespean egongo direlarik (...).

Jarraian, Estatutuko 23. Artikulua hurrengo xedatzen du: *“El profesional de la Abogacía no podrá aportar a los Tribunales, ni facilitar a su cliente, las cartas, documentos y notas que, como comunicación entre profesionales de la Abogacía, mantenga con el profesional de la Abogacía de la otra parte, salvo que este lo autorice expresamente. (...)”*. Beraz, honakoan jada beste subjektu bat sartzen da jokoan; auzitegiak. Artikulu honen bidez ez da galarazten auzitegiek abokatuek aurkeztutako probak ez onartzea, hala balitz, Konstituzioko 24. Artikulua jasotzen duen frogabide egokiak erabiltzeko oinarrizko eskubidearenpean aukakoa izango bailitzateke.

Kasu honetan, abokatuei beren lankideekin duten harremanaz abusatu eta hauekin mantendu dituzten harremanen frogak, auzitegiei aurkeztea debekatzen da, betiere beste alderdiaren baimenik ez badago. Bada, honako hau eginez gero, Estatutuan bertan jasotako disziplinazko arau-hauste baten aurrean egongo ginateke. Azken hau zehazki 125. Artikuluko a). i. atalean jasotzen delarik: *“Son infracciones graves de los profesionales de la Abogacía: a) La vulneración de los deberes deontológicos en los casos siguientes: i. La infracción de los deberes de confidencialidad y de las prohibiciones que protegen las comunicaciones entre profesionales en los términos establecidos en el artículo 23 de este Estatuto General. (...)”*. Honek bere zigorra 127. Artikuluan aipatzen du. Baina hori aipatu aurretik, 121. Artikulua tipikotasun-printzipioari buruz hitz egiten duela aipatu behar da. Bertan, titulu horretako (XI. Titulua), bigarren, hirugarren, bosgarren eta seigarren kapituluetan deskribatutako jarrerak disziplinazko-arau-hausteak izango direla dio. Arau-hauste oso larriak, larrik eta arinak izan daitezkeelarik. Hala, Estatutuko 124. Artikulua arau-hauste oso larriak zeintzuk diren tipifikatzen du, geure kasuan sekretu profesionalari buruz interesatzen zaiguna

124.f) atalean jasotzen delarik. Jarraian, aipaturiko 125. Artikuluak arau-hauste larriak tipifikatzen ditu, hemen, aipatu moduan, 125.a.i. artikulua delarik sekretu profesionalarekin lotua. Eta azkenik, 126. Artikuluak arau-hauste arinak jasotzen ditu.

Arau-hauste guzti hauek ondorio diziplinarioak izango dituzte, 127. Artikuluak tipifikatzen dituelarik. Bere lehen atalean, arau-hauste oso larrien kasuak eta proportzionaltasun kriterioak jarraituz, abokatuen kolegiotik kaleratzea edo urte batetik bi urte bitarteko abokatzatza jardueraren suspentsioa ezarriko da. 127.2. artikulua arau-hauste larrien kasuan abokatzatza-jardueraren suspentsioa ezartzeko aukera egongo dela dio, hemengo hau 15 eguneko gutxienez eta urte betekoa izango delarik gehienez. Horren ordean, 1.001 euro eta 10.000 euro arteko isuna ezartzeko aukera ematen da. Arau-hauste arinei dagokionean, ohartarazpen idatzia, abokatzatzen jarduna gehienez ere 15 egunetara edo 1.000 eurora arteko isuna ezartzeko aukera ematen da.

135. artikulua abokatzatzen profesionalen diziplina-erantzukizuna elkargokideen zehazpena betetzen denean, hauek hiltzean, arau-haustea preskribatzean eta zehazpena preskribatzean azkentzen dela dio. Preskripzio epeak 136. Artikuluak jasotzen ditu bere lehen atalean, arau-hauste oso larrientzat hiru urteko preskripzio epea ezartzen duelarik, arau-hauste larriak bi urteko epean eta arau-hauste arinak aldiz sei hilabetetan preskribatuko direla aipatzen da.

Erantzukizun diziplinarioaren aipamena alde batera utzirik, eta Espainiako Abokatzatzen Estatutu Orokorrekin amaitzeko, 59. artikulua aipatzea gustatuko litzaidake, hemengo honek sekretu profesionalarekin loturarik ez duten arren, abokatzatzen beste profesionalakiko betebeharrak zeintzuk diren zehazten baitu. Hala, 59.1. artikulua abokatzatzen profesionalak elkarrekiko leialtasuna eta errespetua izan behar dutela adierazten duen bitartean, 59.2.d) artikulua abokatzatzen profesionalak judizioz kanpoko negoziazioen etetea jakinaraztera behartuta daudela dio, erreklamazio judiziala aurkeztu aurretik edo, hala badagokio, ebazpen baten betearazpena eskatu aurretik beste lankideakiko harremanetan.

1.8 Espainiako Abokatzatzen Kode Deontologikoa

Azkenik, Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoa ere aipatzekoa da. Lehenik 4. Artikuluak aipatzen duen konfiantza eta osotasuna aipatzen hasiz. Izan ere, bezeroarekiko harremana elkarrekiko konfiantzan oinarritzen da, eta jokabide profesional osoa, zintzoa, leiala, egiazkoa eta arduratsua izan beharko da⁵⁰. Artikuluaren hirugarren atala jarraituz gainera, taldean edo beste profesional batzuekin lankidetzan jardunez gero, abokatutzan dihardutenek eskubidea izango dute konfiantza- eta osotasun-printzipioen aurkakoa den edozein esku-hartze baztertzeko bulegoko beste bezeroen aukako edo interes-gatazka jazotzen bada⁵¹.

Sarrera gisa laugarren artikulua aipaturik Kode Deontologiakoari dagokionean, bostgarren artikulua bereziki aztertuko dugu, geure kasuarekin guztiz loturik baitago sekretu profesionala jasotzen baitu. Hala zatika aztertzen joatearren, lehenengo zatiak abokatuek izan beharreko konfiantza eta konfidentzialtasunari buruz hitz egiten diugu. Bostgarren artikuluekin jarraituz, 5.5. artikulua hurrengoa dio: *“El secreto profesional ampara las comunicaciones y negociaciones orales y escritas de todo tipo, con independencia del medio o soporte utilizado”*. Beraz, ahoz, Whatsapp bidez, korreo elektronikoko bidez edo bestelako harremantzeko tresnen bidez hitz egindakoa ere sekretu profesionaltzat hartzen da.

Horrez gain, sekretu profesionalerako betebeharrak eta eskubideak bezeroaren konfidentzialtasun eta proposamen guztiak hartzen ditu, baina ez bakarrik bezeroarenak, kontrako alderdi edo lankideenak soilik, baita jarduera profesionalean jardutearen ondorioz izan dituen edo igorri edo jaso dituen egitate eta dokumentu guztiak ere⁵².

Bostgarren artikuluko hirugarren zatira itzuliz, hurrengoa dio: *“Cualquier tipo de comunicación entre profesionales de la Abogacía, recibida o remitida, está amparada por el secreto profesional, no pudiendo ser facilitada al cliente ni aportada a los Tribunales ni utilizada en cualquier otro ámbito, salvo autorización expresa del remitente”*

⁵⁰ Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2019ko martxoaren 6an onartzen duen Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoko 4.1. artikulua.

⁵¹ Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2019ko martxoaren 6an onartzen duen Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoko 4.3. artikulua.

⁵² Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2019ko martxoaren 6an onartzen duen Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoko 5.2. artikulua.

y del destinatario, o, en su defecto, de la Junta de Gobierno, que podrá autorizarlo discrecionalmente, por causa grave y previa resolución motivada con audiencia de los interesados". Beraz hemen aipatzen den moduan, sekretu profesionalaz dihardugarik komunikazioak inola ere zabaldu ezin direla aipatzen du. Horrez gain, 5.4. artikulua komunikazioak grabatzeko ezintasuna ezartzen du.

Azkenik aipatu, Abokatutzaren Kode Deontologikoko 21.2. artikulua ere ezinbestean aipatzekoa dela, izan ere, artikulua informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilerari buruz dihardu eta aipaturiko xedapenak halaxe dio: *"Se debe hacer uso responsable y diligente de la tecnología de la información y la comunicación, debiendo extremar el cuidado en la preservación de la confidencialidad y del secreto profesional"*⁵³.

2. Estatuz gairiko xedapen aipagarriak

Maila supranazionalan ere badira kasu honetan aplikatu ditzakegun hainbat xedapen. Hauek, hala eta guztiz ere, Europar Batasunean aplikagarri diren xedapen eta nazioarteko mailan aplika daitezkeen artean banatuko ditugu. Dena den, Espainiar ordenamenduaren kasuan ez bezala, EB eta nazioarte mailan, sekretu profesionala abokatu bezero harremanetara aplikatzen da. Ez abokatuen arteko harremanetara. Beraz, araudiaren aipamen orokor bat egingo dudan arren, aipaturiko jurisprudenzia batez ere abokatu-bezero harremaneko sekretu profesionalari buruz emanikoa da.

Hala, alde batetik, Europar Batasuneko maila aztertu behar dugu, izan ere, Erkidegoaren ikuspegitik, abokatuaren sekretu profesionala oinarrizko printzipioa da, defentsa- eskubidean integratua, baldin eta bi baldintza betetzen badira: harreman profesional baten esparruan mantentzen den informazioa edo korrespondentzia izatea, eta abokatu

⁵³ Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2019ko martxoaren 6an onartzen duen Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoko 21.2. artikulua.

independenteen aurrean egotea, hau da, lan-harreman baten ondorioz bere bezeroarekin loturarik ez duten abokatu independenteen aurrean⁵⁴.

Sekretu profesionalaren kasuari dagokionez, abokatu-bezero harremanean, hauek mantentzen dituzten korrespondentziak “sekretuak” babesten duela ulertzen da⁵⁵. Bestalde, defentsa eskubideari dagokionez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2010eko irailaren 14ko epaiak honako hau dio: *”Procede recordar que el respeto del derecho de defensa...constituye un principio fundamental del Derecho de la Unión que la jurisprudencia del Tribunal de Justicia ha puesto de relieve en varias ocasiones y ha sido consagrado en el art. 48.2 de la Carta de Derechos fundamentales de la Unión”*⁵⁶.

Defentsa-eskubideak barne hartzen du askatasunez hautatutako abokatu batek aholku emateko, defendatzeko eta ordezkatzeko ahalmena, eta gainera, hurrengo azpimarratzen du: *“...la protección de la confidencialidad de las comunicaciones entre abogados y clientes forma parte de este derecho”*⁵⁷, betiere lehen aipatutako baldintzak betetzen badira. Azken honekin, abokatuen arteko harremanak ere konfidentzialtasunarekin babestuak direla esan genezake.

Honako hau, ez litzateke posible ordea, Erkidegoko ordenamendu juridikoan islatuko ez balitz. Hala, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 8. Artikulua (datu pertsonalen babesa) bai eta 47. Artikuluak dira aipagarri, azken honek, Espainiako Konstituzioko 24. Artikuluaren parera, babes eraginkorrerako eskubidea jasotzen duelarik. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 19. artikulua defentsarako

⁵⁴ PELAYO JIMÉNEZ, Ramón, “Transcendencia constitucional de la garantía de confidencialidad entre abogado y cliente. Ilícitud de la prueba obtenida con quebranto del «secreto profesional»” *Diario La Ley*, 10254 zk., 2023, 4. Or.

⁵⁵ Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko, 1982ko martxoaren 18ko *AM&S EUROPE LTD/COMISIÓN* epaia. 155/79 Gaia.

⁵⁶ Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko, 2010eko irailaren 14ko 152217/2010 Epaia. C-550/07P Auzia.

⁵⁷ PELAYO JIMÉNEZ, Ramón, “Transcendencia constitucional de la garantía de confidencialidad entre abogado y cliente. Ilícitud de la prueba obtenida con quebranto del «secreto profesional»” *Diario La Ley*, 10254 zk., 2023. 4-5 or.

eskubidea Batasunaren Zuzenbidearen oinarritzko zutabe gisa aitortzen duela ere aipatu behar da⁵⁸.

Bestalde, Europar Batasuneko maila alde batera utzirik, nazioarteko mailari dagokionez, sekretu profesionala, Espainiak sinaturiko nazioarteko tratatu nagusietan aitorturik dago. Zehatzago adieraztearren, New Yorkeko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 14.3.d artikuluan eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 6. eta 8. Artikuluetan besteak beste⁵⁹.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hainbat epaitan adierazi du abokatuaren eta bezeroaren arteko sekretu profesionala lotuta dagoela justizia-administrazio ona bermatzeko interes publikoarekin, eta berme hori zuzenean lotzen dituela 8. (intimitaterako eskubidea abokatuaren eta bezeroaren arteko komunikazioei dagokienez) eta/edo 6. artikuluekin (defentsarako eskubidea)⁶⁰.

Azkenik Europar Batasuneko Abokatuaren Kode Deontologikoa ere aipatu behar da, 2.3. artikuluan ere sekretu profesionalaren aipamena egiten baita baina zigorrik edo ondoriorik aipatu gabe. Halaxe dio artikulua: “2.3.1. *Forma parte de la esencia misma de la función del Abogado el que sea depositario de los secretos de su cliente y destinatario de informaciones basadas en la confianza. Sin la garantía de confidencialidad, no puede existir confianza. Por lo tanto, el secreto profesional es un derecho y una obligación fundamental y primordial del Abogado. La obligación del Abogado relativa al secreto profesional conviene al interés de la Administración de Justicia, y al del cliente. Esta obligación, por lo tanto, debe gozar de una protección especial del Estado.* 2.3.2. *El Abogado debe guardar el secreto de toda información, de la que tuviera conocimiento en el marco de su actividad profesional (...)*”.

Kasu honetan beraz, hasieran aipatu moduan, zuzenean abokatuaren arteko harremanak edo korrespondentziak sartzen ez direla ikusi dezakegu. Baina dena den, sekretu profesionala Europa mailan, bai eta nazioarte mailan ere aipatzen dela aditzera eman nahi nuen.

⁵⁸ *Ibidem.*

⁵⁹ *Ibidem.*

⁶⁰ *Ibidem.*

Auzitegi Gorenaren epai batek, Europar Abokatutzaren Kode deontologikoarekin bat etorritik, interpretazio zabalago batekin hurrengo dioelarik: *“constituye el secreto profesional el derecho y obligacion fundamental y primordial del abogado que le obliga a guardar secreto de cualquier informacion confidencial de la que tenga conocimiento en el marco de su actividad profesional”*⁶¹.

V. SEKRETU PROFESIONALA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Geure kasuan, abokatuak sekretu profesionala gordetzeko duten betebeharrak hitz egingo dugu, izan ere beste hainbat lanbidetan sekretu profesionala gordetzeko betebeharrak ematen den arren (medikuak, poliziak, epaileak, kazetariak...) abokatutzaren kasuan nola ematen den aztertuko dugu.

Aurreko beste atal batzuetan aipatu moduan, abokatuak sekretua gordetzea ezinbesteko du bere bezeroaren konfiantza lortu nahi badu. Baina konfiantza hau ez da soilik bezeroarekiko harremanean aplikatu behar, abokatuak gatazkak konpontzeko beste alderdiekin dituzten harremanetan konfiantza jartzea ere ezinbestekoa da, lanbidearen giltzarria delarik⁶². Azken hau nire lanaren ardatza delarik. Izan ere, abokatuak dituzten harreman mota ezberdinak kontuan izan gabe, hauek guztietan sekretu profesionala gorde behar dute. Baina, honen bortxaketa ematen den kasuan zer? Hori aztertuko dugu planteatzen zaigun epaian. Aurretik noski, sekretu profesionalak zertan datzan azalduz, eta honakoa gaur egungo teknologia berriei nola ematen den ikusiz.

1. Kontzeptu eta araudia

RAE-k dioena jarraituz, lanbide jakin batzuetako kideek (hala nola medikuek, abokatuak, notarioek eta abarrek), beren lanbidean ezagutu dituzten gertakariak ez jakinarazteko betebeharrak dute, Zigor Kodeko 199.2. Artikuluak sekretu profesionala azalazteaz zigortzen duelarik. Hala, profesional batek isilpean gordetzeko edo erreserbatzeko betebeharrak betetzen ez badu, eta beste pertsona baten sekretuak zabaltzen baditu,

⁶¹Auzitegi Gorenaren, Administrazioarekiko Auzien Salako, 2003ko abenduaren 16ko RJ/2005/3604 Epaia.

⁶² Auzitegi Gorenaren, Administrazioarekiko Auzien Salako, 2003ko martxoaren 3ko RJ 2003\2643 Epaia.

urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra, eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna, bai eta lanbide horretarako desgaiakuntza berezia (bi urtetik sei artekoa) ezarriko zaiola adierazten da⁶³.

Sekretu profesionalaren objektua zein den aztertzeko Europar Batasuneko Abokatuen Kode Deontologikoak bere 2.3.2 artikuluan zer dioen ikusiko dugu: *“Un abogado debe respetar el secreto de toda información de la que tuviera conocimiento en el marco de su actividad profesional”*. AEO-k 22.1. artikuluan aldiz hurrengoa dio: *“El deber y derecho de secreto profesional del profesional de la Abogacía comprende todos los hechos, comunicaciones, datos, informaciones, documentos y propuestas que, como profesional de la Abogacía, haya conocido, emitido o recibido en su ejercicio profesional”* eta beraz teknologia berrien bidez (posta elektronikoko mezuak, Whatsapp-ak, sare sozialen bidez bidalitako mezuak...) lortutako informazio guztia ere hemen sartuko litzateke.

Horrez gain, hirugarren atalak hurrengoarekin amaitzen du: *“Las conversaciones mantenidas con los clientes, los contrarios o sus abogados, de presencia o por cualquier medio telefónico o telemático, no podrán ser grabadas sin previa advertencia y conformidad de todos los intervinientes y en todo caso quedarán amparadas por el secreto profesional”*. Beraz sekretu profesionala abokatuen harremanetan, hauek bezeroak zein kideak izan, presente dagoela argi ikusi dezakegu.

Sekretu profesionala abokatuek duten betebeharrak bat izateaz gain, funtsezko eskubide bat ere bada, eta hori sendotzeak berekin dakar organo administratibo eta judizialen errekerimenduen aurrean amore ez ematea ere. Betebeharrak eta eskubide hau, ez dago abokatu-bezero harremanak izan behar duen konfiantza-printzipioan soilik, askoz haratago doa, eta sekretu profesionala herritarren defentsarako eta intimitaterako oinarritzeko eskubideen berme gisa eratzen da⁶⁴.

Doktrinaren eskutik Cervilla Garzón-ek hurrengoa dio: *“el secreto profesional no es un derecho fundamental en sí mismo. Ahora bien, su existencia sirve para garantizar*

⁶³ Zigor Kodeko 199.2. artikulua.

⁶⁴ MARTÍNEZ MURCIANO, Carlos, “El secreto profesional”, *Miramar Deontologia*. 187. Zk., 2011, 24. Or.

derechos fundamentales”. Honekin sekretu profesionala bere horretan oinarrizko eskubide bat ez dela adierazten da, baina Konstituzioko 18. (intimitaterako eskubidea) eta 24. Artikuluetan (defentsarako eskubidea) jasotzen den kontzeptu bat izanik, oinarrizko eskubideen maila du⁶⁵⁶⁶. Honekin bat dator *La nueva configuración del secreto profesional del abogado* liburuko Juan Antonio Andino Lopez autorearen ere, izan ere, liburu horretan aztertutako jurisprudentziak (besteak beste Konstituzio Auzitegiko 110/1984 epaia azaroaren 26koa; Konstituzio Auzitegiko 6/1988 epaia, urtarrilaren 21koa eta Auzitegi Konstituzionalaren 167/2000 autua, uztailearen 7koa), ez du sekretu profesionala oro har, oinarrizko eskubide autonomo gisa hartzen, eskubide hori urratzeak, EK 18. eta 24. Artikuluak urratzea baitakar. Honakoa da hain zuzen ere Zamorako Auzitegi probintzialak 133/2009 epaian ere berresten duena⁶⁷, zeinetan sekretu profesionalaren arauketa autonomoa falta zaiola dioen, bere arauketa Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak osatu duelarik.

Sekretu profesionala gainera, intimitate- eta defentsa-eskubidearekin hertsiki loturik egoteaz gain (EK 18 eta 24. Artikuluak), abokatutzaren interes sozialarekin ere harremana du. Justizia egin ahal izateko, abokatuek, auzitegiei egitateak eman behar dizkiete, modu teknikoan azaldutako alderdien jarrerak babesteko. Baina, lan hori egin ahal izateko, abokatuek gertaera guztiak ezagutu behar dituzte, eta bezeroek bertsio egiazkoa eta osoa eman diezaieten, beharrezkoa da informazio konfidentziala gaizki erabiliko ez delakoaren bermea. Beraz, sekretuaren instituzioa abokatutzaren gizarte-iraupenari berari loturik doa⁶⁸.

Gainera, abokatuek duten sekretu profesionalaren eskubide eta betebeharrak hau, abokatutzaren printzipio gidarietako bat da (AEO 1.3. art.), hau beteko duela zin egiten du jardunean hasi baino lehen (AEO 10.1. art.), eta gainera, arau-hauste oso larritzat

⁶⁵ ANDINO LOPEZ, Juan Antonio, “Efectos de la vulneración del secreto profesional del abogado en el proceso civil”, *Universitat de Barcelona*, 2013, 106 or.

⁶⁶ CERVILLA GARZÓN, M^a Dolores, “La prestación de servicios profesionales”, *Tirant lo Blanch*, 186 zk., 2001, 331. Or.

⁶⁷ Zamorako Probintzia Auzitegiko, lehenengo sekzioko, 2009ko uztailearen 13ko 133/2009 Epaia.

⁶⁸ MARTÍNEZ MURCIANO, Carlos, “El secreto profesional”, *Miramar Deontologia*. 187. Zk., 2011, 24. Or.

hartzen da, jarduera profesionala urtebetetik bi urte bitartean eteko zaiolarik (AEO 124.f eta 127.1. art.)⁶⁹.

Gainerako arauketari dagokionean, zer edo zer aipatu dudan arren, aurreko ataletan aipatu moduan, anitzak dira hau arautzen duten lege eta arauak. Bada, Konstituzionaltasun maila duen kontzeptu bat izanik, oinarrizko eskubide ere bada, izan ere, 1975eko Espainiako Konstituzioak bere 20.1.d (“*Se reconocen y protegen los derechos: (...) d) A comunicar o recibir libremente información veraz por cualquier medio de difusión. La ley regulará el derecho a la cláusula de conciencia y al secreto profesional en el ejercicio de estas libertades*”) eta 24.2. artikuluan aipatzen du. Horrez gain, arestian aipatu moduan, Konstituzioko 18. Artikuluarekin ere hertsiki loturik doan kontzeptu bat da (intimitaterako eskubidea). Hala eta guztiz ere, Botere Judizialeko Lege Organikoko 542.3. atalean; Espainiako Abokatutzaren Estatutuko IV. Kapituluari; Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoko 5. Artikuluan eta maila supranazionalean Europar Batasuneko Abokatuaren Kode Deontologikoko 2.3. artikuluan ere arautzen da (azterketa juridikoan gehiago sakonduko dut honetan).

Konfidentzialtasunari dagokionean bestalde, RAE-k dionaren arabera konfidentzial izatearen nolakotasuna da, konfidentzialki egindakoaren edo esandakoaren erreserbari eutsiko zaiolakoan egiten edo esaten dena da. Sekretu profesionalarekin guztiz loturik doalarik beraz, azken finean konfidentzialtasun horrez abusu egitean, abokatu bere jarduera profesionalean dagoelarik, beste alderdiaren baimenik gabe (beste abokatu edo bezero izan) hitz egindakoa azaleratzen bada, sekretu profesionala bortxatzeaz hitz egingo genuke, honek ekar litzaken ondorioekin (azterketa juridikoan ikusiko ditugunak).

Sekretu-profesionala beraz, abokatu guztiei, bereizketarik egin gabe, konfidentzialtasuna gordetzeko eskubidea eta betebeharra ezartzen dien erakundea da. Edozein hedabideren bidez lortutako egitate, albiste, datu eta komunikazio guztiei eragiten die, bezeroarekin, aurkariarekin, aurkako abokatuarekin, lankideekin, abokatuaren elkargoetako gobernatzaordeetako kideekin eta administrazio Publikoko kideekin (besteak beste, Justizia

⁶⁹ ANDINO LOPEZ, Juan Antonio, *La nueva configuración del secreto profesional del abogado*, J.B. Bosch, 2021, 55. Or.

Administrazioko kideekin) lortutako harreman profesionalaren bai eta interakzioaren barruan lortu baditu⁷⁰.

Hala, ezin izango zaio da hauek ezagutarazi, legeak araututako larritasun bereziko kasuetan izan ezik, eta betiere ulertzen bada interes horiek babes handiagoa izan behar dutela abokatuak bere gain hartzen duen aholkularitza- eta defentsa-harreman profesionaletik eratorritako interesetan, kasu horretan salbuetsita gera baitaiteke. Sekretu profesional horrek, nolana ere, bezeroaren defentsarako eta intimitaterako oinarrizko eskubideak bermatu eta errespetatu behar ditu, abokatuak bere jardun profesionalean duen konfiantzan eta independentzian oinarrituta⁷¹.

Honen harira, Auzitegi Gorenak, sekretu-betebeharra urratzen duela iritzi dio bezero bati emandako aholkularitzari buruz lekuko gisa deklaratzeko duen abokatuari⁷², baina baita prozesu bati bere bulegoan grabatutako zintak ematen dizkionari ere⁷³, baita grabazioa bezeroak egin badu ere, nahiz eta abokatu bertan ez egon⁷⁴.

VI. ABOKATUEN ARTEKO NEGOZIAZIOAK FROGABIDE GISA

Lan honen ardatz diren frogabideen inguruan jardungo dut hurrengo puntu honetan. Frogabideak, kasu honetan, abokatuaren arteko negoziazioak izango dira (posta elektronikoko bidezkoak), ondoren aipatuko dudako epaiaren kasuan bezala, hauek izango baitira epaiketan aurkeztuko direnak.

Atal honetan, frogabideek Espainiar ordenamenduan duten garrantzia, eta honen aipamen txiki bat egitea gustatuko litzaidake. Azken finean, nire lanak duen zatirik

⁷⁰ CÁNOVAS ÁLVAREZ, Guillermo, “La Independencia de los Abogados y el Secreto Profesional”, *Revista Jurídica, Región de Murcia*, 49.zk., 2015, 68-60. Or.

⁷¹ *Ibidem*.

⁷² Auzitegi Gorenaren, Administrazioarekiko Auzietako Salako, 1999ko maiatzaren 19ko RJ\1999\6148 Epaia.

⁷³ Auzitegi Gorenaren, Administrazioarekiko Auzietako Salako, 1999ko maiatzaren 10eko RJ\1999\4799 Epaia.

⁷⁴ Auzitegi Gorenaren, Administrazioarekiko Auzietako Salako, 1999ko maiatzaren 24ko RJ\1999\7257 Epaia.

garrantzitsuenetakoa baita. Honek, aldi berean zailtasunak dakartza zer azaldu eta nola azaldu adierazterakoan, izan ere, froga-baliabideak zer diren, zeintzuk diren, nola arautzen diren, zertarako balio duten... eta horrek dakarren jurisprudentzia guztiak beste lan oso batetarako emango luke.

Baina, hemengo kasuan, abokatuek, beste abokatuekin dituzten harremanetan sekretu profesionala bortxatu eta hitz egindakoa edo izandako komunikazioak epaiketara frogabide gisa aurkezteari dagokionean dihardugu. Hala, zuzenbide prozesalaren ikuspuntutik frogabideen inguruan aipamen txiki bat egingo dut, nola funtzionatzen duten ikusiz, betiere nire kasua erdigunean jarririk.

1. Kontzeptu eta araudia

Defentsa egoki batetarako frogabide egokiak erabiltzeko eskubideak, jurisdikzioaren arabera erabakiko den gatazka batean murgilduta dagoenari bere interesekin bat datorren froga-jarduera sustatzeko aukera ematen dio, betiere honakoa ordenamenduaren arabera onartua bada⁷⁵. Hala, lehenik froga eta frogabidearen desberdinketa zein den azaldu behar da, izan ere, Prozedura Zibileko Legean bertan biak ezberdintzen dira, V. kapitulua “*Froga: xedapen orokorrak*” titulupean, frogei buruzkoa delarik eta VI. Kapituluaren ordea frogabideei buruzkoa: “*Frogabideak eta presuntzioak*”.

Bada, froga, alde batek, arau prozesalaren araututako bitartekoen bidez, aurkeztutako jarduketa prozesala da. Horren bidez, bere nahiaren oinarria aldarrikatu eta egiaztatzeko ahalegin egiten du, prozesu judizialean bere esanaren egiazkotasuna arrazoitzeko. Aldiz, froga-baliabide edo frogabideak, gaztelerazko “*medios de prueba*”, prozesu batean zenbait gertakari egiazkoak direla frogatzeko aurkeztu diren iturriei edo objektuei bide emateko jarduera bakoitza da. Horien bidez, aldean baieztapenak egiazkoak edo gezurrezkoak diren erabakitzeko elementuak eskuratuko ditu epaileak. Horretarako frogaren balorazio askea egingo du delarik bere kontzientziaren arabera edo bere esperientzia-ereduak kontuan izanik eta irizpide logiko eta arrazionaletan oinarrituz⁷⁶.

⁷⁵ Auzitegi Konstituzionalaren, 1995eko irailaren 11ko 131/1995 Epaia.

⁷⁶UPV/EHU Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi Juridikoa. Koordinatzaileak: Xabier Alberdi Larizgoitia, Miren Azkarate Villar, Joseba Ezeiza Ramos, Leire Imaz Zubiaurre eta Ixusko Ordeñana Gezuraga.

Hala, frogabideetarako eskubidea, Konstituzioak bere 24. Artikuluan (babes eraginkorrerako eskubidea) jasoriko oinarritzko eskubide bat dela kontuan izan behar dugu, : “(...) 2. *Asimismo, todos tienen derecho al Juez ordinario predeterminado por la ley, a la defensa y a la asistencia de letrado, a ser informados de la acusación formulada contra ellos, a un proceso público sin dilaciones indebidas y con todas las garantías, a utilizar los medios de prueba pertinentes para su defensa, a no declarar contra sí mismos, a no confesarse culpables y a la presunción de inocencia (...).*” Pertsona orok babes eraginkorraren printzipioan oinarrituz bere defentsarako frogabide egokiak erabiltzeko eskubidea du, oinarritzko eskubide delarik, baina bere horretan eskubide independente bat ez dela ikusi dezakegu, horrek ekar ditzaken ondorioekin.

Kasu honetan, Konstituzioko 24.2. artikulua “frogabide egokiak” aurkezteari dagokionean, arazoak ekar ditzake “frogabide egoki” zer den erabakitzerakoan. Honen aurrean, Konstituzio Auzitegiak bai eta Auzitegi Gorenak, baldintza formal eta material batzuk sortu dituzte akusazio partikularrari edo defentsari dagozkion frogabideak erabiltzeko eskubidea noiz urratzen den ulertu ahal izateko. Halaxe dio: a).- *La actividad probatoria ha de ser solicitada en la forma y momento legalmente establecidos;* b).- *La prueba ha de ser pertinente, lo que, a partir de la competencia de los órganos judiciales para la evaluación de pertinencia, supone que el proponente de la misma, hoy Recurrente, ha de argumentar convincentemente en torno a la pertinencia de la prueba denegada sin que, por contra, el órgano judicial haya fundamentado el rechazo de un modo no irrazonable, o de un modo tardío tal, que genere indefensión, o riesgo de perjuicio o condicionamiento de su solución sobre la prueba o de la decisión de fondo;* c).- *La prueba ha de ser relevante para la decisión del litigio "decisiva en términos de defensa (SSTS de 12/06/2000 , 22/01/2001 y 5/11/2001)”.⁷⁷*

Gainera, Estatuko Fiskaltza Nagusiak, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1996ko Memorian, froga ez-zilegi, debekatutako froga eta froga irregularrak zertan datzan azaldu zuen. Hurrengoa aipatuz: froga ez-zilegizat hartzen da jatorria eta/edo garapena oinarritzko eskubide edo askatasun bat urratu bada; froga debekatutzat hartzen da froga ez-zilegiaren ondorioa, hau da, prozesura eraman ezin den froga, sorreran oinarritzko eskubide edo

⁷⁷ Madrilgo Probintzia Auzitegiko, 27. Sekzioko, 2017ko irailaren 28ko 1199/2017 autoa.

askatasunak urratu baititu; eta, azkenik, froga irregularra izango litzateke hura lortzea eta gauzatzea arautzen duten maila arrunteko arauak urratuz ematen dena⁷⁸.

Dena den, Konstituzioan jasorik egoteaz gain, Giza Eskubide eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmenaren (Giza Eskubideen Europako Hitzarmena) 6.3. artikulua, akusatu ororen eskubideak aipatzen ditu. Eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 48. Artikuluak “*akusatu orori bermatzen zaio defentsaren eskubideen errespetua*” dio. Beraz, hauek zuzenean frogabidea aipatzen ez duten arren, EK 24. Artikuluaren kasuan bezala, babes eraginkorraren printzipiopean jasorik dagoela ulertu dezakegu, zeinak defentsa-eskubide konstituzionala dakarren, eta hau ez da bakarrik geure ordenamendu juridikoaren adierazgarri, nazioarte zein EB mailan ere hala baita⁷⁹.

Espainiar ordenamendura itzuliz, Kode Zibilak bere horretan frogabideei dagokionez ezer ez diolarik, Prozedura Zibileko legera joko dugu, izan ere, eta arestian aipatu moduan, V. kapituluak “*Froga: xedapen orokorrak*” aipatzen ditu. Bere lehen artikulua, 281 zenbakidunak zehazki, frogaren objektu eta beharra definitzen ditu: “*1. Frogaren objektu izango dira prozesuan lortu nahi den babes judizialari lotutako egitateak. 2. Frogaren objektu izango dira, halaber, ohitura eta atzerriko zuzenbidea. Ez da ohitura frogatu behar, alderdiak ados badaude ohitura horren izate eta edukiarekin, eta ohituraren arauak ordena publikoa ukitzen ez badute. Atzerriko zuzenbidea frogatu behar da beraren eduki eta indarraldiari dagokionez; atzerriko zuzenbide hori aplikatzeko, auzitegiak behar besteko ikerketa-bideak erabil ditzake. 3. Egitatei buruzko frogarik ez da egin behar, alderdiak erabat ados badaude egitateen gainean, prozesuaren gaia auzilarien xedatze-ahalmenetik kanpo dagoenean izan ezik. 4. Ez da frogarik egin beharko nabaritasun handi eta orokorreko egitatei buruz*”.

Frogabideei dagokienez aldiz, VI. Kapituluako 299. Artikuluak zeintzuk diren aipatzen ditu 299.2 artikulua, epaiketan erabili daitezkeen frogabide arruntez gain, hitza, soinua

⁷⁸ GINER ALEGRÍA, César Augusto, “Prueba Prohibida y Prueba Ilícita”, *Universidad de Murcia*, 26. Zk., 2008, 583.or.

⁷⁹ PELAYO JIMÉNEZ, Ramón, “Transcendencia constitucional de la garantía de confidencialidad entre abogado y cliente. Ilícitud de la prueba obtenida con quebranto del «secreto profesional»”, *Diario La Ley*, 10254 zk., 2023, 3. Or.

eta irudia erreproduzitzeko baliabideak, eta elkarrizketak, datuak, zenbakiak eta kontabilitate-helburuaz nahiz bestelakoaz egindako eragiketa matematikoak artxibatzea, ezagutzea eta erreproduzitzea ahalbidetzen duten tresnak, prozesurako garrantzitsuak badira onartuko direla dio. Bai eta egitate garrantzitsuen inguruan egiazkotasuna lor badaiteke, auzitegiak esanbidez zehatu ez dituen bestelako frogak, beharrezkoak diren neurriak hartuz kasuan kasu, onartuko ditu alderdiek hala eskatzen badute⁸⁰.

Honako hau gaur egungo teknologia berrien kasuan, PZL-ak frogabide gisa, aurrerapen teknologikoen ondorioz, prozesuan garrantzitsuak diren egitateak finkatzeko aukera ematen duten instrumentuak onartzen dituelarik. Dena dela, PZL-ko 299.2 eta 3, 382 eta 284. Artikuluetan aurkitu dezakegu arauketa⁸¹.

2. Teknologia berrien kasua

Teknologia berriak azken urteetan geure egunerokotasunaren parte izatera igaro dira, horrek ondorioz, gizartean eragin duen eanean, auzitegietan ere eragina izan du, bai eta frogabiderako eskubidean⁸². Honek, muga klasikoak gainditu eta jurisprudenzia sortzeko berme konstituzional berriak bai eta oinarrizko eskubide berriak errespetatzea dakar. Horrela, legez aurreikusitako frogabide gisa aurkez daitezke legezko bideetatik lortutako froga-iturri teknologikoak, nahiz eta zenbait berezitasun izan⁸³.

Proba teknologikoa, doktrinan, metadatuak dituen artxibo informatiko oro bezala definitu da, bere edukari buruzko informazio “ezkutua”, eta biltegitua, informazio legala bihurtu behar delarik. Ildo horretan, Carneluttik sorturiko froga iturriaren eta frogabidearen desberdintasun klasikoa egin behar da, zeina lehenengoa prozesutik kanpoko errealitatearen edozein elementu den, egitate batzuei buruz konbentzitzeko balio duen; eta frogabidea, berriz, elementu pertsonal edo material horiek prozedura sartzea eta gauzatzea diziplinatzen duten legezko prozeduren multzoa den. Hala, norberak pentsa

⁸⁰ Castelloneko Probintzia Auzitegiko, hirugarren sekzioko, 2011ko abenduaren 2ko 420/2011 Epaia.

⁸¹ FLORS MATIES, José, *GPS Procesal Civil*, Tirant Lo Blanch, 2019, 822-823 Or.

⁸² ARRABAL PLATERO, Paloma, *Tratamiento procesal de la prueba tecnológica*, Universidad Miguel Hernández-en aurkeztutako doktoratu tesia, 2019, 40. Or.

⁸³ ARRABAL PLATERO, Paloma, “Licitud y práctica de la prueba tecnológica”, *Aranzadi Doctrinal, Thomson Reuters*, 1/2021 zk. 2021.

dezakeen adina proba teknologiko daude; pen drive bat, ordenagailu bat, WhatsApp bat, posta elektronikoa bat, foro bateko iruzkin bat, txio bat, Youtubeko bideo bat, Instagrameko aldi baterako argitalpen bat... eta gehiago izango da teknologiak aurrera egin ahala⁸⁴.

Bueno de Matak honela definitzen du proba teknologikoa: “prozesurako garrantzitsuak diren egitateak – fisiko zein elektronikoak – egiaztatze aukera ematen duen bitarteko elektronikoa, hura izateko beharrezkoak diren bi elementuz osatua (...): elementu tekniko bat, egoitza judizialeko hardware bati erreferentzia egingo diona, edo kanal elektronikoa bati, kudeaketa prozesal informatizatuko sistema baten bidez aurkezten denean, eta izaera ukiezina izango duen elementu logiko edo software bati”⁸⁵.

Nabarmentzekoa da, horrelako ebidentziak dituzten “metadatuak”, batzuetan, abantaila gisa informazioaren eta komunikazioaren teknologiek soilik lotutako proba batzuk izaten dituztela eskuragarri, hau da, argazki digital batek esaterako datuak gordetzen ditu hartu dituzten orduari eta egunari buruz, baita erabilitako gailuaren ereduari buruz ere; bi norabideko mezularitzako aplikazioen bidezko komunikazioek aukera ematen dute jakiteko zein terminaletatik bidali eta/edo jaso dituzten eta zein unetan; eta World dokumentuek edukia gordetzen dute sortzeko uneari buruz, eta hala badagokio, ondorengo aldaketari buruz⁸⁶.

Hala eta guztiz ere, hemengo honek desabantailak ere badakartza; manipulazio teknologikoa ematearena zehazki, zeinak operadore juridiko batzuen artean proba horiek onartzeak gaitzespena dakarren. Espainian, ideia horren jatorria, bereziki, Auzitegi Gorenaren maiatzaren 19ko 300/2015 epaian aipatzen da (RJ 2015, 1920). Halaxe dio: *“la posibilidad de una manipulación de los archivos digitales mediante los que se materializa ese intercambio de ideas, forma parte de la realidad de las cosas. El anonimato que autorizan tales sistemas y la libre creación de cuentas con una identidad fingida, hacen perfectamente posible aparentar una comunicación en la que un único*

⁸⁴ *Ibidem*.

⁸⁵ BUENO DE MATA, Federico, “Las diligencias de investigación penal en la cuarta revolución industrial”, *Aranzadi*, 2019, 133. Or.

⁸⁶ *Ibidem*.

usuario se relaciona consigo mismo. De ahí que la impugnación de la autenticidad de cualquiera de esas conversaciones, cuando son aportadas a la causa mediante archivos de impresión, desplaza la carga de la prueba hacia quien pretende aprovechar su idoneidad probatoria. Será indispensable en tal caso la práctica de una prueba pericial que identifique el verdadero origen de esa comunicación, la identidad de los interlocutores y, en fin, la integridad de su contenido”⁸⁷.

Beraz, abantailak anitzak diren arren, berekin dakartza beste hainbat desabantaila ere, eta ponderazio bat egin beharko bagenu agian ez genuke teknologia berri hauen erabilpena onetsiko, baina errealitatea bestelakoa izanik, eta teknologiaren aurrerapenari uko egin ezin diogularik, teknologiak dakartzan desabantaila hauei aurre egiteko bide eta tresnak bilatzea soilik ezin dugu egin.

Bada, hau guztiaren aurrean, auzitegiek froga onartzeari dagokionez, ordena zibilean, ondo dakigu, auzi bat irabazteko ez dela nahikoa arrazoia izatea: benetan eskubidea dagoela egiaztatu behar da babes judiziala lortzeko. Lan konplexua da, zalantzarik gabe, baina oso garrantzitsua alderdien asmoak arrakastatsuak izan daitezen. Horretarako epailea konbentzitzea lortu behar dugu, frogabideen erabilera ezinbestekoa delarik⁸⁸. Kasu honetan jokoan sartzen da beraz aipaturiko frogabide egokiak erabiltzearen eskubidea, Konstituzioko 24.2. artikuluan jaso.

Azken honekin loturik, Bartzelonako Auzitegi Probintzialak, honen inguruan esandakoa aipatzea garrantzitsua dela deritzot. Izan ere, frogabide gisa onartu ditu zinta magnetikoak, bideoak eta ahozko erreproduktzioarako edo ikusizko irudikapenerako beste edozein bitarteko, betiere eskuratze horiek ez badira zuzenbidearen aurka egin edo eta ez badituzte hauetan agertzen diren pertsonen oinarrizko eskubiderik urratu⁸⁹.

⁸⁷ Auzitegi Gorenaren, Zigor-arloko salako, 2015eko maiatzaren 19ko 300/2015 Epaia.

⁸⁸ SIGÜENZA LÓPEZ, Julio, “Tres problemas que suscita la llamada «prueba electrónica»: la obtención de la información, su incorporación o aportación a una causa civil y su posterior valoración”, *Universidad de Murcia*, 2021.

⁸⁹ Bartzelonako Probintzia Auzitegiko, 13. Sekzioko, 2018ko maiatzaren 28ko 349/2018 Epaia.

Baina, teknologien aipamena eginik, frogabide egokiak zeintzuk diren, ze bideetatik lortuak eta batez ere bi arau eta eskubide tartean sartzen direnean hauen ponderazioa nola egin erabakitzea zaila izan daiteke, azken finean eskubide bata aukeratzean beste eskubidea baztertzen baita.

Horren adibide dugu 6251/2023 epaia teknologia berrien bidez aurkezturiko frogen kasu bat delarik, orain arte aipatzen joan garen abokatuaren papera, sekretu profesionalaren betebeharra eta teknologia berrien gorakadak dakartzan arazoa jasotzen baititu. Nola ez, abokatuen arteko harremanetatik lorturiko frogabideak izango ditugarik erdigunean.

VII. MADRILGO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIKO 6251/2023 EPAIA

Nire Gradu Amaierako Lanaren ardatza, ondoren aipatuko dudana epaia da, 6251/2023 epaia, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusikoa da. Bertan, orain arte aipatzen nindoan kontzeptuak (sekretu profesionala edo teknologia berriak esaterako) barne biltzen dira. Azkenik, sarreran aipatu dudana moduan, erantzun nagusi bat ematea izango da helburua: abokatuen beren kideekin duten konfidentziasunaz abusu egitea, ondoren epaiketan negoziatio horiek froga gisa aurkezteko, kasu honetan, frogabide horiek euskarri informatikoetan ematen direlarik.

Abokatuak batzuetan arazoak izan ditzakete, interes kontrajarriak talka egin baitezakete bezeroaren interesak defendatzean eta horrek beste abokatuarekin izandako harremanean erabilitako froga dokumentalak aurkeztea badakar: burofax, posta elektronikoa, gutunak, emailak edo Whatsapp-ak. Hauek guztiak sekretu profesionalpean gordetik daude eta epaiketan hauek aurkeztea debekaturik dago Espainiako Abokatzaren Estatutu Orokorrengandik bai eta Espainiako Abokatzaren Kode Deontologikoarengandik. Posible da soilik beste alderdiaren adostasuna badago edo dagokion Abokatuen kolegioko Batzar Orokorra onartzen badu, kasuan kasu.

Hau guztiaren aurrean ordea ukazina da abokatuak defentsarako egokien dagozkion frogabideak erabiltzeko oinarritzko eskubidea, babes eraginkorrerako eskubidea aldarrikatuz (EK 24.art.). Beraz hurrengo epaian hauze azalduko da: abokatuak halako frogan erabilpenak, azkenean oinarritzko eskubide baten egikaritzan, lanbideak exigitzen

dituen oinarritzko exigentzia etikoak urratzen dituela. Zilegi da? Onargarriak dira? Zein balioetsi?

1. 6251/2023 Epaia, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusikoa

Ondorengo lerroetan, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak emandako 6251/2023 Epaia laburpena egingo dut. Bertan, sarrera aipaturiko sekretu profesionalaren urraketa, Konstituzioak babesturiko frogabiderako eskubidea, Abokatutzaren Estatutu Orokorreko araudia... azaltzen da. Lanaren ardatz izan da epai hau, eta beraz, bertan planteatzen den arazoari erantzutea izango da nire helburua, ondorioetan garatuko dudalarik. Zati honen antolaketari dagokionez, epaiak berak duen ordena jarraituz antolatu dut; lehenik aurrekariak, ondoren zuzenbideko oinarriak eta azkenik epaia bera azalduko.

1.1 Aurrekariak

Aurrekari moduan 508/2023 epaia⁹⁰ aipatzen hasi behar gara. Hau, Auzitegi Gorenaren Epai bat da, Madrilgo Auzitegi Probintzialak emandako 1238/22 epaiaren⁹¹ aurkako erregutze-errekurtsoa ebatzen duena.

Auzitegi Gorenera heldutako erregutze-errekurtso honen oinarrian, bi epai daude; lehena 2021eko uztailaren 19an emandako kaleratze bati buruzkoa, zeina Mostoleseko 26. zenbakiko epaitegiak 251/2021 epaia ematen duen, eta kaleratzea estimatu. Bigarrena aldiz kantitateagatiko erreklamazio bati buruzkoa da.

2021eko uztailaren 19an lan arloko epaitegiak kaleratzeagatiko demanda estimatzen duelarik (enpresak langilea kaleratzen du), bi alderdien letratuak negoziaketetan hasten dira, enpresariaren abokatuak akordio bat proposatzen diolarik langilearen abokatuari posta elektronikoko bidez (abuztuak 3 eta 4an). Hala, Lexnet bidez akordioa epaitegian aurkezteko adierazten dio eta bere bezeroak behin dirua duelarik, “*justificante de desestimación de cantidad pendiente*” delakoaren idatzia bidaltzeko esaten dio (abuztuak

⁹⁰ Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko, Lan-arloko salako, 2023ko maiatzaren 26ko 6251/2023 Epaia.

⁹¹ *Ibidem*.

6an). Abuztuaren 7an, langilearen abokatuak, hurrengo mezu elektronikoa bidaltzen dio: *“adjunto escrito firmado por servidor, trabajadora de acuerdo, gracias”*.

Abuztuak 12an bi alderdiek epaitegian *“acuerdo transaccional”*-a aurkezten dute 36/2011 legeko, 235.4. artikuluan oinarrituz. Abuztuak 17an, alderdiek adostutako *“acuerdo transaccional”*-a homologatzen da auto bidez eta hala, lan harremana martxoaren 16an amaitu zela adierazten da. Trukean langileak 13.726,26€-ko indemnizazioa jasoko duela onartuz. Enpresak, hurrengo egunetan langilearen abokatuari *“escrito de desestimación del procedimiento relativo a la reclamación de cantidad”* eskatzen dio, posta elektronikoko bidezko mezuetan.

Demandatzaileak, hau da, langileak, adiskidetze-idatzia aurkezten du 2021eko apirilaren 16an bitartekaritza-, arbitraje-, eta adiskidetze-zerbitzuetan, azkenean demanda tarteratuz 2021eko maiatzaren 3an Mostoleseko epaitegi dekanon.

Bigarren epaia, langilearen demanda desestimatu eta auziz kanpoko adostasuna egon dela onartuz amaitzen da: *“apreciar la excepción de satisfacción extraprocesal o carencia sobrevinida de objeto alegada por Newman Security S.L.”*.

Honen aurrean ordea, erregutze errekurtoa aurkezten du langileak, zeina enpresarengandik inpugnatua izan den.

1.2 Zuzenbideko oinarriak eta epaia

Zuzenbideko oinarriei dagokienean, orain arte aipatzen joan garen arazoaren planteamenduaren berri ematen da lehenengo zatian: letratuen arteko mezuen baliozkotasuna frogabide gisa.

Aipatu moduan, bi demanda egon dira langilearen aldetik; lehenengoa 2021eko uztailaren 19an estimatzen da Mostoleseko 2 zenbakidun lan arloko epaitegian (421/2021 autoa), kaleratzea bidegabea izan dela deklaratu eta ondorioz langileari 13.726,26€-ko indemnizazioa ordainduko zaiola erabakiz. Posta elektronikoko bidez bi letratuek negoziatzen duten akordioan (ondoren epaitegiak homologatzen duena), betiere langileak erregutze-errekurtoa atzera botatzen badu.

Bigarren demanda ordea, kantitateagatiko erreklamazio bati buruzkoa da. Hemengo honetan, langileak aipaturiko indemnizazioa jaso duelarik, atzera-egiteko idatzia aurkeztuko duela aipatzen da.

Alderdiek Mostoleseko 2 zenbakidun lan epaitegian (lehenengo bista suspenditu eginenez 2. Zenbakiko epaitegira pasatzen da), 2021eko abuztuaren 12an “*acuerdo transaccional*”-a aurkezten dute, 36/2011 legeko 235.4. artikuluan oinarrituz eta hala, abuztuaren 17an auto bidez alderdiak iritsitako akordioa homologatzen da. Ondorioz, 2021eko martxoaren 16an lan harremana bertan behera gelditu eta 13.726,26 €-ko indemnizazioa ordaintzen zaio langileari.

Hala ere, enpresak hurrengo egunetan (abuztuak 19, abuztuak 31 eta irailak 12) langilearen abokatuari posta elektronikoko mezuak bidaltzen dizkio kantitatearen inguruko atzera egitearen dokumentua eskatuz: “*reclamando el escrito de desestimación del prodimiento relativo a la reclamación de cantidad*”.

2022ko uztailaren 15ean Mostoleseko lan arloko 1 zenbakiko epaitegiak, langileak jarritako kantitateagatiko demanda desestimatzen du (adostasun extrajudizial bat egon delako) baina langileak erregutze-errekurtso bidez errekurritzen du. Hemengo hau 1. Sekzioari dagokio adostasun extraprozesal bat egon delako (PZL 22. Art.) 2021eko abuztuaren 17ko auto bidez indemnizazioa onartu delarik baina ez da atzera egin delakoaren idatzirik aurkeztu.

Hau argudiatzeko hirugarren atalean azalpena ematen da. Bertan, auzitegiak enpresak aurkezturiko salbuespen prozesala estimatzen du, alderdiek Kode Zibileko 1809. Artikuluan oinarritutako kontratu transakzional bat adostu zutela esanez, zeinak bi demandei eragiten dien. Hau arrazoitzeko proba bezala enpresak beste alderdiarekin negoziaketetan erabilitako posta elektronikoko mezuak aurkezten dizkio epaitegiari, eta epaitegiak frogabide hau onartu egiten du.

Posta elektronikoko mezu hauek 2021eko abuztuak 3 eta 9an trukatu dituzte eta akordio global batetara iristeko nahia erakusten dute bi alderdiek; lehenengo demandari dagokionez kaleratzeagatiko prozedimenduari buruzkoan (421/2021 autoak), enpresak 13.726.36€ ordainduko dizkiola esanez eta langileak beraz erregutze errekurtsoan atzera

egingo duela aipatuz, eta bigarren demandari dagokionez (kantitateagatiko erreklamazioa) behin indemnizazioa kobraturik demandatzailearen atzera egitearen idatzi bat eskatzen da.

Hala, argi gelditzen dira akordio global horretarako baldintzak, 2021eko abuztuaren 6an enpresak atxikitzen duen akordioak bi alderdien sinadura baitzuen, hau Lexnet bidez aurkeztuko zuela esanez eta behin demandatzaileak dirua zuenean *“escrito de desestimio del procedimieno de cantidad aportando justificacion del mismo”* emango zuela adieraziz. Hurrengo egunean langilearen defentsak gainera hurrengo mezua bidaltzen dio enpresaren defentsari: *“Adjunto escrito firmado por servidor, trabajadora de acuerdo, gracias”*.

Ondorioz, akordio transakzionala egon zela argi gelditzen da, horretarako beharrezkoak diren adostasun, objektu eta kausa egon baitziren. Baina, arazoa da, demandatzaileak ez zuela akordio globalean hitzartutako obligazioa bete ez baitzuen *“procedimiento de reclamacion de cantidad”* entregatu, bi alderdiek hitzartutako baldintza zena. Beraz, demandatzailearen salbuespen prozesala ematen da, judizialki homologaturiko adostasun bat egon baita langileak indemnizazioa jasotzean.

Honen aurrean, langileak bere errekurtsioan epaiaren planteamenduarekiko desadostasuna adierazten du, zeina kontraz inpugnatua izan zen, bi arrazoiketa emanez: alde batetik legalitate printzipioaren haustura, Konstituzioko 9 eta 103 artikuluetan oinarrituz, abokatuen arteko harremanak ez zirela epaiketan onartuak izan behar alegatuz. Eta bestalde, Konstituzioko 24.1., Giza Eskubideen Hitzarmenaren 6.3.c. eta Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duen 135/2021 errege dekretuko 22 eta 23 artikulua aipatuz: sekretu profesional eta abokatuen arteko konfidentziasunari dagokionean. Baita, Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologikoko 5.3. artikulua eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuneko 47. Artikulua ere.

Errekurritutako epaia ezeztatzeko arrazoietako bat beste alderdiak (enpresak) aurkeztu zituen probak ziren, zeinak abokatuen arteko korreo konfidentzialak zituen, baina hau ez zen errekurritua izan langilearen defentsarengandik (PZL 283.3 art. arabera ez da legezkoa). Honek, hasiera batean errekurtsio horretan (*“recurso extraordinario de suplicacion”*) zuen balioa, konfidentziala ez zela onartzen zuela adierazten du.

Horretarako, 422/2017 epaia aipatzen da, instantzian planteatu ez diren kuestioak ezin izango direla ondoren planteatu aipatzeko, eta hala izatekotan hauek baztertu egin beharko direla esanez (“*Principio dispositivo o justicia rogada*”, PZL VI. Epigrafea, 216. Artikulua eta 218.1. artikulua).

Epaiak dioen moduan, Konstituzioko 24.1. artikulua urratu dela esan ahal izateko, ez da nahikoa arau prozesalen ez betetze formal hutsa, ez eta organo judizialen ez betetze edo hutsegite prozesal soila ere, baizik eta interesdunarentzat kalte material bat ekarri behar dute, hau da, interesdunarengan hutsegite edo ez betetze prozesal hauek bere defentsarako eta kontra egiteko aukera eraginkorretan eragin erreal bat izan beharko dute.

Lan arloa arautzen duen legeko 193.a. artikuluan oinarrituz, “sine qua non” baldintzetako bat da prozedimenduko arauen haustura emateko babesgabezia eman izana, karga edo kalte horrek eragotzi egiten baitu norberaren eskubideak prozesuan alegatu eta frogatzeko eskubidea.

114/1984 Konstituzio Auzitegiaren epaia jarraituz⁹², ez dago zalantzarik frogabide hauen onarpenaren inguruan, hau da, epaiketan grabazio, kaptazio edo elkarrizketa proba hauen erabilpena egin dezakete hauetako baten parte direnek eta ondorioz oinarrizko eskubide hau ez urratu. Hala eta guztiz ere, abokatu batek beste alderdiaren baimenik gabe elkarrizketa hauek aurkezten baditu (edo dagokion kolegioaren baimenik gabe), legeak debekaturiko egintza baten aurrean gaude, arau deontologiko baten aurrean, zeinak ekintza hau zigorgarria dela dioen, baina aldi berean ez du oinarrizko eskubiderik urratzen.

Honek esan nahi du, frogabideak aurkezteko oinarrizko eskubidea egikaritzen ari dela (EK 24.2. art.), eta gainera PZL-ek debekatzen ez duelarik, urratzen den araua lege deontologiko bat denez (EK 24. Art. maila altuagokoa da), epaileak frogabide hau onartu eta baloratu beharko duela. Konstituzio Auzitegiak honako hau onartzen du beraz, konstituzioz azpiko lege batez ari baikara.

Arau deontologikoen urrapenaren inguruan, onarpen judizialak deuseztatze eskaerari dagokionean, Madrilgo Entzutegi Probintzialak hurrengoa dio 198/2015 epaian: arau

⁹² Auzitegi Konstituzionalaren, 1984ko azaroaren 29ko 114/1984 Epaia.

deontologikoen urrapen hutsak ez dira nahikoa egintza prozesalen deuseztasuna eskatzeko baina horrek ez du esan nahi erregimen deontologiko horren ondorioz jasoko ez duenik.

332/2013 Madrilgo Auzitegi Probintzialekoa: modu honetara, konstituzionaltasun maila ez duten arauen urrapenaren bidez lorturiko frogabideak, eta orokorrean *legez kontrako* kontsideratu daitezkenak, onartuak eta baloratuak izan daitezke frogarako oinarrizko eskubidea onartzen duen konfigurazio konstituzionalaren arabera. Ondorioz, oinarrizko eskubideak urratu gabe lortu bada froga, epailearengatik libreki baloratua izan daiteke, froga lortu duen horren erantzukizun zibil, penal edo diziplinarioa alde batera utzirik. Egintza hau beraz irregularra izango da baina ez eraginkortasunik gabea. Hau guztiaren arrazoia, konstituzioak frogabiderako eskubideari ematen dion oinarrizko izaeran datza, bai eta babes eraginkorrerako eskubidean ere.

Zortzigarren eta azken atalari dagokionean, azalduko arrazoiketako kontuan hartuz, errekurritutako epaiaren deuseztasuna arrazoituko duen arrazoi pisutsurik ez dagoela adierazten da. Izan ere, arau deontologikoaren urraketa gauza bat da, zeinak abokatuen kolegioko ondorioak izango dituen, ad intra, eta bestea ordea ad extra efektu juridikoak ukatzea EK 24. Artikuluan oinarritutako frogabide egokiak erabiltzeko eskubidea dela eta. Hala, epaian erreklamaturakoa konpromezu transakzional extraprozesala onartzen da, kaleratzeagatik indemnitazioa jaso zuelarik baina "*escrito de desestimio*" aurkezten zutenaren konpromezua ez zuten bete eta ondorioz errekurtsioa desestimatu eta epaia berrestera darama.

Laburbilduz, alde batetik letratuak dagozkion frogabideak erabiltzeko eskubidea dago bere bezerearen defentsan eta sekretu profesionala bortxatu. Hala, ikuspuntu deontologikoa alde batera utziz, kasu honetan enpresak aurkezturiko froga erabilgarria eta zilegia dela ulertzen da, hau lortzeko bidean ez baita oinarrizko eskubiderik urratu.

2. Juridikoki planteatzen den gatazka

Behin epaia azalduz, orain arte aipaturiko guztiaren laburpen bat, edo eta juridikoki planteatzen zaigun gatazkaren azalpen argi bat egitea garrantzitsua dela deritzot.

Lan honetan arau bakoitzak duen lege maila zein den ondo ulertzea ezinbestekoa da, ez bere horretan duen balioagatik bakarrik, baizik eta kasu honetan, lege maila bat izateak edo bestea izateak ondoriotan eragin zuzena izango duelako. Edo aitzitik, konstituzioak zuzenean azaltzen duen kontzeptu bat izateak, edo hainbat artikuluetatik atera daitekeen kontzeptu bat izateak desberdintasun nabaria duelako.

Hala, arauketaren azalpen guztia emanik, abokatu batek, beste abokatuarekin dituen harremanez abusu egiten badu, eta hauek izan dituzten komunikazioetatik probetxu atera, ondoren partekatu dituzten dokumentuak edo informazioa froga gisa epaiketa batean aurkezteko (dela harreman judizial edo extrajudizialek), sekretu profesionalaren arau-hauste edo bortxaketa baten aurrean egongo ginatekeela argi gelditu zaigu.

Abokatutzaren Estatutu Orokorrak dioena jarraituz, gogorarazi behar da, abokatu batek beste abokatu batekin izan dituen harremanen frogak ezin izango dituztela epaiketan aurkeztu, espresuki baimenik eman ez bada behintzat⁹³. Hau emango balitz, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorreko 125. Artikulua aplikatuko da, ondorio diziplinarioak 127. Artikuluan jasotzen direlarik.

Beraz, abokatu batek beste abokatuarekin izandako harremanen konfidentzialtasun-betebeharra urratzen duenean, azaltzen joan garen kasuan, teknologia-bitartekoen bidez, hau ondoren frogabide gisa epaiketan aurkezteko, eta epaileak Espainiako Konstituzioko 24. Artikuluaren arabera froga onartuko duelarik (oinarrizko eskubidea baita), ez du konfidentzialtasun-betebehar hori hausten duen abokatuaren erantzukizun diziplinarioa bertan behera utziko.

Ondorioz, 125. Artikulua aplikatuz, arau hauste larri baten aurrean egongo gara, zigor gisa 15 egunetik urte betera arteko ezgaitzea ekarriko duelarik edo eta 1.001 eurotik 10.000 eurora arteko isuna.

Honako hau bereziki aipagarria da, nire aburuz kasuak ekar ditzaken ondorioak kontuan hartuko baditugu, ponderazio bat egin, eta ezarri daitekeen zigorra motz gelditu baitaiteke

⁹³ Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuko 23. artikulua.

epaiketa irabaztearekin konparatuz (ondorio diziplinarioak). Hau da, behin eta berriro aipatu dugun moduan, oinarrizko eskubide bat urratzen ez den bitartean, auzitegiek bide irregularretatik lorturiko froga hauek onartuko dituzte. Beraz, juridikoki ongi dagoen ekintza batean egongo garen arren, zalantzarria da honen zilegitasun morala, negoziazioak duen garrantzia kontuan hartuz.

Azken finean abokatuen arteko negoziatioetan ematen den konfiantza falta honek ziurgabetasuna dakar bai abokatutza lanbiderako, bai bezeroen interesei dagokionez. Izan ere, aurretik egiten den negoziatio lan horrek hasiera batetik balioko ez duela badakigu, epaiketan borrokatu beharko da helburua, horrek dakartzan arrisku guztiekin, gazteleraz esan ohi den moduan “más vale un mal arreglo que un buen pleito”⁹⁴.

3. Legedia berriaren aipamena: Defentsa Eskubideari buruzko Lege Organikoaren proiektua.

Nire azken iritzira hurbiltzen ari garen honetan, Diputatuen Kongresuan dagoen Defentsa Eskubideari buruzko Lege Organikoaren proiektuari aipamen txiki bat egitea gustatuko litzaidake. Eta bide batez, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Estatuak duen araudiak zer dioen ikustea ere interesgarria dela iruditzen zait.

Hala, aipaturiko Diputatuen Kongresuan dagoen Defentsa Eskubideari buruzko Lege Organikoaren proiektuari dagokionez, hau Ministro Kontseiluak, Presidentetza, Justizia eta Gorteekiko Harremanetarako Ministerioak proposatutakoak onartu du. Erabaki horrekin, Parlamentuak beste bultzada bat eman ziolarik testu horri; izan ere, aurreko legegintzaldian Legebiltzarrean izapidetzen ari zen, eta bertan behera geratu zen hauteskunde orokorren deialdiarekin.

Lege honek, alderdien defendatzaileek izandako komunikazioak, edozein unetan edo helbururekin egiten direla ere, konfidentzialak izango direla dio, eta ezin izango direla

⁹⁴ SERRANO HOYO, Gregorio; RODRÍGUEZ GARCÍA, Nicolás ; RUIZ LÓPEZ, Cristina; TIerno BARRIOS Selena, *Justicia Restaurativa y Medios Adecuados de Solución de Conflictos*. Dykinson, 2022, 219. Or.

epaiketan erabili, behin Defentsa Eskubidearen Lege Organikoaren Proiektua indarrean sartzen denean, ez dutela froga-baliorik izango.

Hemengoa, araua aitzindaria da Europan, eta bere helburua segurtasuna ematea da, bai herritarrei, defentsarako duten eskubidea egikaritzean, bai abokatutzako profesionalei, beren lana gauzatzean, bermeen eta betebeharren araubide bat ezarriz⁹⁵. Izan ere, D. Juan Ortiz Úrculok dioen moduan (Cremades & Calvo Soteloren egungo bazkidea, eta Estatuko Fiskal Nagusi izandakoak) jurisprudentzia anitza den arren, eta babes eraginkorraren eskubidea babesteko eskubidera argi azaltzera daraman arren, hau legez arautua egotea litzateke gauza, Konstituzioak dioen moduan, Lege Organiko bidez⁹⁶.

Lege Organiko honek, Konstituzioko 24. Artikuluaren garapen bat ekarriko luke, nire lan honi dagokionez, proiektuko 15. Artikulua delarik aipagarriena. “*Garantía de confidencialidad de las comunicaciones y secreto profesional*” titulupean, 15.2. artikulua hurrengoa dio: “*Las comunicaciones mantenidas exclusivamente entre los defensores de las partes con ocasión de un litigio o procedimiento, cualquiera que sea el momento en el que tengan lugar o su finalidad, son confidenciales y no podrán hacerse valer en juicio, ni tendrán valor probatorio, excepto en los casos en los que se hayan obtenido de acuerdo con lo previsto en la Ley de Enjuiciamiento Criminal u otras leyes de aplicación o en que su aportación o revelación haya sido autorizada conforme a la regulación profesional vigente*”. Beraz, honako honek lan honetan aipatutako guztia berretsiko luke lege organiko baten babesarekin, izan ere, gaur egun hau garatzen duen araua errege dekretu bat baita.

Bestalde, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Estatuak dioena aztertzea ere interesgarria iruditzen zait. Azken hau, nire ondorioetara guztiz hurbiltzen baita. Nolanahi ere, kontuan

⁹⁵BOE, Proyecto de Ley 121/000006 Proyecto de Ley Organica de Derecho de Defensa, 6-1 zk., 2024ko otsailaren 2an. (2024.06.09an konprobatuta, helbide honetan eskuragarri: [121/000006 Proyecto de Ley Orgánica del Derecho de Defensa. \(congreso.es\)](https://www.congreso.es/proyecto_ley_detalle_13 Congreso/121/000006/000006))

⁹⁶ OLMEDO COUCEIRO, Mercedes, “Límites al derecho de defensa: Intervención de las comunicaciones entre abogado y cliente” *Elderecho.com*, 2011. (2024.06.10ean konprobatua, helbide honetan: <https://elderecho.com/limites-al-derecho-de-defensa-intervencion-de-las-comunicaciones-entre-abogado-y-cliente>).

izan behar da Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Estatutuaren aplikazioaren gainetik aurkituko dugula Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra.

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Estatuak⁹⁷ sekretu profesionala 25.1. artikuluan jasotzen du, eta hau urratuko balitz, 94.1.b) artikulua aplikatuko litzatekeela dio. Hemengo hau da bereziki azpimarragarria, izan ere, 94. Artikuluak arau-hauste oso larriak jasotzen baititu, ez Abokatutzaren Estatutu Orokorren kasuan bezala. Azken artikulua honek zigorrak 97. Artikuluan daude, hurrengoa dioelarik: *“Las infracciones serán sancionadas conforme a lo previsto en el artículo 16 de la Ley vasca 18/1997, de 21 de noviembre, de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales”*.

Azken lege honetara egindako igorpenaren bidez, sekretu profesionalaren bortxaketa ematen den kasua ikusi dezakegu. Hemengo honetan⁹⁸, 15.1.c) artikuluan jasotzen da sekretu profesionala bortxatzea arau-hauste oso larri gisa; zigorra 16.1. artikuluan dagoelarik: *“1. Las infracciones muy graves podrán ser objeto de alguna de las siguientes sanciones: a) Inhabilitación profesional por un tiempo comprendido entre un año y un día y veinte años, en los términos del artículo 17. b) Multa comprendida entre 500.001 y 5.000.000 pesetas (...)”*. Beraz argi ikusi dezakegu urtebete eta egun batetik hogeita urte bitarteko desgaitasuna ezartzeko edo 1.274,31 eurotik 12.743,04 euroko isuna jartzeko aukera egon daitekeela.

VIII. ONDORIOAK

Abokatuen arteko harremanean konfidentzialtasuna mantentzeak duen garrantzia analizatu dugu lan guztian zehar (sekretu profesionala azpimarratuz). Bereziki abokatuek

⁹⁷ AGINDUA, 2021eko martxoaren 4koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Ilustre Colegio de la Abogacía de Gipuzkoa - Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren estatutuetan egindako aldaketak. (2024.06.13an konprobatuta, helbide honetan eskuragarri: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli-/agindua/agindua-2021eko-martxoaren-4koa-gobernantza-publiko-eta-autogobernuko-sailburuarena-zeinaren-bidez-onartzen-baitira-ilustre-colegio-abogacia-gipuzkoa-gipuzkoako-abokatuen-elkargoaren-estatutu-egindako-aldaketak/>)

⁹⁸ Tituladun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 Legea, 237 zk., 1997ko abenduaren 11koa.

beste abokatu batzuekin dituzten harremanak, hau da, epaiketa aurretik (edo beranduago) izaten dituzten negoziazioetan zer nolako portaerak ematen diren aztertu dugu.

Hau guztia hala eta guztiz ere, Justizia Auzitegi Nagusiko 6251/2023 Epaiak planteatzen digun gatazka aztertzeko bide izan da: abokatuek beste abokatuekin izandako negoziazioen froga, beste alderdiaren baimenik gabe, epaiketan frogabide gisa aurkeztea, eta ondorioz sekretu profesionalaren bortxaketa ematea. Honako hau, euskarri telematikoetan ematen den kasuan aztertu dugularik (dokumentalki edo fisikoki egingo balitz ere ondorio berak izango zituen).

Hala, oinarritzko eskubideen figura erdigunean jarri dugu, bereziki Konstituzioko 24. Artikuluari erreparatuz, frogabiderako eskubidea eta babes eraginkorrerako eskubideari dagokionez. Honen garrantzia azpimarratuz, beste lege maila bat duten artikuluekin konparatu dugu eta ondorioak ikusi. Epaian aditzera ematen den moduan, azkenean, epailearen esku utziko da Abokatutzaren Estatutu Orokorraren eta Konstituzioaren arteko talkaren kasuan ponderazioa egitea; Konstituzioko 24. Artikulua gailenduz eta ondorioz abokatuen arteko konfidentziasunaren abusua eman dela onartu arren, neurririk ez hartzen.

Juridikoki abokatuen arteko harremanak normaltasunez garatzen uzten ez diren honetan, gatazka juridikoa konpontzeko bide nagusia, negoziaketa, oztopatzen dela esan genezake. Hauek, azkenean, konfidentziasunean oinarritutako harremanak direlako eta lanean zehar aipatu moduan, egoera horrek, eragin handia sortu dezake justiziak dituen arazoak biderkatzean.

Bada, honen aurrean eta oinarritzko eskubidea bere garrantzia kendu nahi ez diodalarik, Abokatutzaren Estatutu Orokorraren arauketarekin bateragarri egin behar dugu. Izan ere, abokatuen lana beren bezeroen interesak babestea den honetan, edonolako neurriak hartuko dituzte horretarako. Epaian ikusi moduan, beste abokatu batekin duen konfidentziasuna bortxatzea aukera bat izan daitekeelarik.

Honen muga, legea izango dugu beti. Izan ere, abokatu batek esaterako, ongi daki ezin diola beste alderdiari inolako min fisikorik eragin, portaera horrek zigor gogor bat ekarriko diolako, eta gainera, moralki gaizki dagoen portaera bat baita. Bada, zergatik ez

da honako hau geure kasura aplikatzen? Abokatuak bere burua zigor gogor baten aurrean ikusiko balu, seguruenik ez lukeela konfidentziasunetik bortxatuko, kasu honetan moralki ongi zer dagoen eta zer ez kontuan izan gabe.

Hala, arrazoi juridikoak alde batera utzirik, 6251/2023 epaian abokatuak harturiko erabakia, konfidentziasuna bortxatzearen ondorioak nahiko arinak direlako da. Abokatuak beste abokatuarekin izandako harremanez baliatzean eta hauek frogatuta gisa epaiketan aurkeztea erabakitzen duenean, beste abokatuarekin duen harremanaz abusatzen duela badaki, eta horrek Abokatutzaren Kode Deontologikoak ezartzen dizkion zigorrak izango dituela. Orduan, zergatik eraman moralki gaizki dagoen ekintza bat aurrera eta gainera zigor deontologikoa ekarriko dizkiona? Nik, argi dut: epaiketa irabaztea askoz ere interesgarriagoa edo eta errentagarriagoa delako, Abokatutzaren Kode Deontologikoak ezarriko dizkion zigorrekin konparatuz.

Beraz, zergatik bada, zigor gogorragorik ez jarri Kode Deontologikoan? Lan honen xedea, orain aipaturiko hau da, beraz: Kode Deontologikoak ezartzen duen zigorra sekretu profesionala bortxatzeagatik, gogortzea. Azkenean, ondorioei erreparatu ordez eta epailearen eskuetan utzi ordez azken erabakia, hau da, maila ezberdinetako arauen arteko ponderazio lana, abokatuak beren kideekiko abusurik gauzatu aurretik birritan pentsatzea ideiarik zuhurrena dela deritzot.

Orain, Abokatutzaren Estatutu Orokorrek dituen zigorrak, lanean zehar, behin eta berriz aipaturiko sekretu profesional eta konfidentziasunari balioa kentzen diola iruditzen baitzait. Eta gainera, teknologiaren atala gogora ekarriz, euskarri telematikoen bidez ematen diren kasuak geroz eta gehiago izango diren honetan, konfidentziasun edo sekretu profesionalaren abusua emateko geroz eta aukera gehiago daudela deritzot.

Beraz, nire proposamena hurrengoa da: Abokatutzaren Kode Deontologikoak ezartzen dituen ondorio diziplinarioei dagokienez zigor larri ordez zigor oso larri gisa sailkatzea Abokatutzaren Estatutu Orokorrek 125.a.i. Artikuluan aipaturikoa. Hala, ondorioak larriagoak izango direnez (*“Por la comisión de infracciones muy graves, atendiendo a criterios de proporcionalidad, podrá imponerse la expulsión del Colegio o la suspensión*

*del ejercicio de la Abogacía por plazo superior a un año sin exceder de dos*⁹⁹), abokatuek beste bide batzuk bilatu beharko dituzte beren helburuak lortu eta bezeroaren interesak babesteko. Honek ordea sistema indartu eta auzitegiak bi arauen arteko ponderaziotik salbuetsiko ditu, azkenean oinarrizko eskubidea ez izan arren, beste arau bat urratzen baita.

Hau, ez da lan xamurra izango, izan ditzakeen ondorioak sistemaren segurtasuna bermatu baitezakete. Baina, kontutan hartzeko erabaki bat dela deritzot, azkenean, abokatuen arteko harremanen garrantzia eta bren izaera bidez konfidentziala, ezinbestekoa baita sistema osoarentzat, irtenbide gisa. Negoziazio extrajudizialak konpontzen baititu gatazka gehienak, eta horregatik da beharrezkoa bere izaera bermatzea, inola ere harreman horiek epaiketa batean frogatu gisa amaitu ez dezaten.

IX. BIBLIOGRAFIA ETA JURISPRUDENTZIA

Araudia

Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duen 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua

Kode Zibila argitaratzen den 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua

1978ko Espainiako Konstituzioa

Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1986 Lege Organikoa.

Zigor Kodea, azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa.

Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 Legea, 237 zk., 1997ko abenduaren 11koa.

⁹⁹ Espainiako Abokatuzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuko 127.1. artikulua.

Prozedura Zibilari buruzko 1/2000 Legea, urtarrilaren 1ekoa.

Abokatuen bulego indibidual edo kolektiboetan zerbitzuak ematen dituzten abokatuen lan-harreman berezia arautzen duen 1331/2006 Errege Dekretua.

Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen 36/2011 Legea, urriaren 10ekoa.

Espainiako Abokatuzaren Kode Deontologikoa, Espainiako Abokatuzaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak onartua 2019ko martxoaren 6an.

IPPN/CNMC/018/19 Errege Dekretuaren proiektua, Abokatuzaren Estatutu Orokorra onartzen duena (2019ko ekainaren 20a), Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala.

Espainiako Abokatuzaren Estatutu Orokorra onartzen duen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretua.

AGINDUA, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Ilustre Colegio de la Abogacía de Gipuzkoa - Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren estatutuetan egindako aldaketak, 2021eko martxoaren 4koa.

EAO, Defentsa Eskubideari buruzko Lege Organikoaren proiektua, 121/000006 Lege Proiektua, 2024ko otsailaren 2koa.

Doktrina

ANDINO LOPEZ, Juan Antonio. “Efectos de la vulneración del secreto profesional del abogado en el proceso civil”, *Universitat de Barcelona*, 2013.

ANDINO LOPEZ, Juan Antonio, *El Secreto Profesional del Abogado en el Proceso Civil*, Bosch Editor, 2014.

ANDINO LOPEZ, Juan Antonio, *La nueva configuración del secreto profesional del abogado*, J.B. Bosch, 2021

ARRABAL PLATERO, Paloma, “Licitud y práctica de la prueba tecnológica”, *Aranzadi Doctrinal*, Thomson Reuters, 1/2021 zk. 2021.

ARRABAL PLATERO, Paloma, *Tratamiento procesal de la prueba tecnológica*, Universidad Miguel Hernández-en aurkeztutako doktoratu tesia, 2019.

BERIZZO, Ines, “La colisión de deberes y el deber de secreto profesional del abogado”, *Comillas Unibersidad Pontifice*. 2021.

BUENO DE MATA, Federico, “Las diligencias de investigación penal en la cuarta revolución industrial”. *Aranzadi*, 2019.

CÁNOVAS ÁLVAREZ, Guillermo, “La Independencia de los Abogados y el Secreto Profesional”, *Revista Juridica, Regidon de Murcia*, 49.zk., 2015.

CERVILLA GARZÓN, M^a Dolores, “La prestación de servicios profesionales”, *Tirant lo Blanch*, 2001.

CLAVIJO SUNTURA, Joel Harry, “El ejercicio de la abogacía y la deontología jurídica en la era digital”, *Associació de Juristes Valencians, Revisa Juridica Valenciana*. 42. Zk. 2023.

FERNÁNDEZ CULEBRAS, María Jesús, "La profesión de abogado. Aspectos generales y deontología profesional", *Facultad de Ciencias Sociales de Cuenca, Seminario Permanente de Ciencias Sociales*, 2011.

FLORS MATIES, José, *GPS Procesal Civil*, Tirant Lo Blanch, 2019.

GARRIDO SUARES, Hidalgo, “Confiability and abogacía: principios deontológicos”, *Universidad Carlos III de Madrid*, 2012.

GINER ALEGRÍA, César Augusto, “Prueba Prohibida y Prueba Ilícita”, *Universidad de Murcia*, 26. Zk., 2008.

MARTÍNEZ MURCIANO, Carlos, “El secreto profesional”, *Miramar Deontologia*. 187. Zk. 2011.

PELAYO JIMÉNEZ, Ramón, “Transcendencia constitucional de la garantía de confidencialidad entre abogado y cliente. Ilícitud de la prueba obtenida con quebranto del «secreto profesional»” *Diario La Ley*, 10254 zk., 2023.

PEREZ CAMPOS, Ana Isabel, “Fuentes de la relación laboral especial de los abogados”, SEMPERE NAVARRO, Antonio Vicente, *Practico Laboral*, V-lex, 2024.

ROMERO PRADAS, Maria Isabel, *Derecho Procesal Laboral. Parte General y Parte Especial*, Tirant lo blanch. 2021.

SERRANO HOYO, Gregorio; RODRÍGUEZ GARCÍA, Nicolás ; RUIZ LÓPEZ, Cristina; TIERNO BARRIOS Selena, *Justicia Restaurativa y Medios Adecuados de Solución de Conflictos*, Dykinson, 2022.

SIGÜENZA LÓPEZ, Julio, “Tres problemas que suscita la llamada «prueba electrónica»: la obtención de la información, su incorporación o aportación a una causa civil y su posterior valoración”. *Universidad de Murcia*, 2021.

VILA RAMOS, Beatriz, “Deontología profesional”, GARRIDO, Fernando, *Normas Deontologicas Reguladoras de las obligaciones y relaciones del abogado con el colegio, con los tribunales, con los compañeros y con los clientes*, Dyson. 2013.

VILLARIJ, Montserrat, *Negociación de Disputas Legales: A la sombra del litigio*, Bosch Editor, 2018.

Jurisprudentzia

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko, 1982ko martxoaren 18ko *AM&S EUROPE LTD/COMISIÓN* epaia. 155/79 Gaia.

Auzitegi Konstituzionalaren, 1984ko azaroaren 29ko 114/1984 Epaia.

Auzitegi Gorenaren, Zigor-arloko salako, 1990eko azaroaren 10eko RJ 1990\8875 Epaia.

Auzitegi Konstituzionalaren, 1995eko irailaren 11ko 131/1995 Epaia.

Auzitegi Gorenaren, Administrazioarekiko Auzietako Salako, 1999ko maiatzaren 19ko RJ\1999\6148 Epaia.

Auzitegi Gorenaren, Administrazioarekiko Auzietako Salako, 1999ko maiatzaren 10eko RJ/1999/4799 Epaia.

Auzitegi Gorenaren, Administrazioarekiko Auzietako Salako, 1999ko maiatzaren 24ko RJ\1999\7257 Epaia.

Auzitegi Gorenaren, Administrazioarekiko Auzien Salako, 2003ko abenduaren 16ko RJ/2005/3604 Epaia.

Auzitegi Gorenaren, Administrazioarekiko Auzien Salako, 2003ko martxoaren 3ko RJ 2003\2643 Epaia.

Zamorako Probintzia Auzitegiko, lehenengo sekzioko, 2009ko uztailaren 13ko 133/2009 Epaia.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko, 2010eko irailaren 14ko 152217/2010 Epaia. C-550/.07P Auzia.

Castelloneko Probintzia Auzitegiko, hirugarren sekzioko, 2011ko abenduaren 2ko 420/2011 Epaia.

Auzitegi Gorenaren, Zibil-arloko salako, 2014ko maiatzaren 20ko 283/2014 Epaia.

Auzitegi Gorenaren, Zigor-arloko salako, 2015eko maiatzaren 19ko 300/2015 Epaia.

Madrilgo Probintzia Auzitegiko, 27. Sekzioko, 2017ko irailaren 28ko 1199/2017 autoa.

Bartzelonako Probintzia Auzitegiko, 13. Sekzioko, 2018ko maiatzaren 28ko 349/2018 Epaia.

Auzitegi Gorenaren, bigarren salako, 2018ko urriaren 10eko 451/2018 Epaia.

Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko, Lan-arloko salako, 2023ko maiatzaren 26ko 6251/2023 epaia.

Webguneak

FERNÁNDEZ LEÓN, Óscar, “La importancia de la deontología para el abogado” *Legal Today*, 2018. Urtea. (2024.06.09an ziurtatuta, helbide honetan eskuragarri: <https://www.legaltoday.com/gestion-del-despacho/gestion-del-conocimiento/la-importancia-de-la-deontologia-para-el-abogado-2018-02-06/>).

JUSPEDIA, “Relaciones del Abogado con sus compañeros de profesión” (2024.05.30ean konprobatuta, helbide honetan eskuragarri: <https://juspedia.es/apuntes/deontologia/relaciones-abogado-companeros-profesion/>).

OLMEDO COUCEIRO, Mercedes, “Límites al derecho de defensa: Intervención de las comunicaciones entre abogado y cliente” *Elderecho.com*, 2011. Urtea. (2024.06.10ean konprobatua, helbide honetan: <https://elderecho.com/limites-al-derecho-de-defensa-intervencion-de-las-comunicaciones-entre-abogado-y-cliente>).

PODER JUDICIAL ESPAÑA, “Encuesta "Los Españoles y la Justicia". Mayo de 2021” 2021. (2024.06.09an konprobatuta, hurrengo helbidean: <https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Transparencia/Buen-Gobierno--Etica-Judicial-y-Comision-de-Etica-Judicial/Encuestas-de-satisfaccion/Encuesta--Los-Espanoles-y-la-Justicia---Mayo-de-2021>)

SÁNCHEZ STEWART, Nielson, “Los Principios Inspiradores de la Deontología: Las relaciones del abogado con sus compañeros de profesión”, *Diario La Ley*, N.º8803, 2016. Urtea. (2024.05.30ean konprobatuta, hurrengo helbidean eskuragarri: <https://diariolaley.laleynext.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAAEA MtMSbF1CTEAAiNjMwNLY7Wy1KLizPw8WyMDQzMDc0NDkEBmWqVLfnJIZU GqbVpiTnEqAA0sf1I1AAAAWKE>)

LEGAL TODAY, “El Gobierno impulsa de nuevo el Proyecto de ley de Derecho de Defensa” (2024.06.13an konprobatuta, hurrengo helbidean eskuragarri: <https://www.legaltoday.com/actualidad-juridica/noticias-de-derecho/el-gobierno-impulsa-de-nuevo-el-proyecto-de-ley-de-derecho-de-defensa-2024-01-24/>)

Besteak

Elhuyar hiztegia

Itzultzaile neuronal

Legeak-Leyes bilduma

Real Academia de la Lengua Española

UPV/EHU Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi Juridikoa.